

Lanera itzuliko dira
Ingemarreko langileak

Elikagaien
bankuarekin
lankidetzaz indartzea
eskatzen du PSE-EEk

Larunbatean,
Gazte Eguna

noaia



Larunbat honetan, manifestazioa Donostian

Osasunaren eta adostasunaren
aldeko urrats berri bat

G Auto Guria s.l

G Auto Guria
Mobil Service

Auto Konponketa

Pre I.T.V.

Marka guztiak

943 363 298

Zelai-haundi 11, Osinalde Pol. USURBIL

**ETXEBIZITZA
ENKANTEAN**



**Eskaera egiteko
azken eguna:
ABENDUAK 20**



Lizitazioko gutxienezko prezioa:
106.323'45 euro

Lizitazioko gehienezko prezioa:
132.823'45 euro

Informazio gehiagorako: **943371951**
edo kontratazioa@usurbil.eus

San Tomas eguna
ospatzeko **deialdia**



**Noaua!k baserritar guztiak
gonbidatu nahi ditu**

Herritarren sagardoa dastatzeko eta
babarrunak ikusteko aukera izango da, besteak beste.
Aurten ere lehiaketa bikaina izango dugu.



Abenduaren
igande goizez **18an**



Albiste iruditan

Ez adiorik, Joxe

Usurbilen ezagun eta maitatua zen Joxe Torregarai Gorostidi joan zitzaigun larunbatean. 2017an 80 urte beteko zituen. Urte luzeetan dinamika ezberdinetan parte hartzen ikusi dugu herrian. Antzezle lanetan esaterako. Eguberrietan Olentzeroren paperean. Baita Usurbilgo Txerriki antzerki taldeko kide izan zen, besteak beste, "Hiru desioak" lanean, Kattalin Arzallus, Ana Arostegi eta Maitere Alkortarekin batera. Umoretik beti, irri eginarazten guztioi. Istorio, pasadizo eta txiste kontalari aparta zen. NOAUA'n ere, alaba Idoiak bezala, ekarpen eder askoa egindakoa da Joxe.

Ez adiorik Joxe! NOAUA! Kultur Elkarreko kideon partetik, besarkada handi bat etxekoei eta lagunei, bereziki bere alaba Idoia (NOAUA!ko lehendakari) eta Ion Markeli (NOAUA!ko kolaboratzaileari).



Kattalin Arzallusekin batera ageri da Joxe Torregarai, Olentzeroz jantzita. Iazko eguberrien bezperan, Aginagako Eskola Txikian.

Laburrean

Santueneko etxebizitza bat, enkantean

Santuenea 25 zenbakiko hirugarren ezkerre helbidean kokatua dagoen etxebizitza enkantean atera du Udalak. Informazio gehiago, Udaletxean bertan: 943 371 951 kontratazioa@usurbil.eus

Zuberoako ikastolak laguntzeko otarrak

Nafartarrak taldeak abiatutako kanpaina da. Abenduaren 9ra arte dago eskaerak egiteko epea: elkartea@noaua.eus, 943 360 321 edo lonxo@telefonica.net
 ■ Informazio gehiago: ikaskoli.eus

Larunbat goizean, Gure Esku Dagoren bilera

2017ko maiatzean erabakitze eskubi-dearen inguruko galdeketa antolatze asmoa du Usurbilgo Gure Esku Dago taldeak. Horretarako bilera deitu dute. Larunbat honetan 12:00etan Potxoenean.

noaua

Kultur Elkartea
 Bordaberrri, 3 - Eguzkitzaldea, 20.170 Usurbil
 943 360 321 ||| elkartea@noaua.eus ||| www.noaua.eus
 Jendaurreko ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:
 Idoia Torregarai.
Aldizkari koordinatoria:
 Imanol Ubeda.
Idazkaria: Aizpea Aizpurua.
Publizitatea: Beatriz Alda,
publizitatea@noaua.eus
Diseinu berria: Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua,
erredakzioa@noaua.eus:
 Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.
Banaketa: Olatz Rezola, Ekhi Arrieta.
Laguntzaileak: Lontxo Zubiria,
 Maria Angeles Arruti, Ainara Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria

Jesus Urbieta, Maddi Galbete,
 Ana Urdangarin, Maddi Zaldúa,
 Inaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon Etxabe, Alazne Begiristain, Denis Elortza, Pello Aranburu, Xabier Aranburu, Inma Balda, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Maialen Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas,

Unai Agirre, Idoia Torregarai eta Udarregi ikastola.
Tirada: 2.800 ale.
Lege-Gordailua: SS-668-96
ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua.



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia



Euskal presoak
 Euskal Herrira!



Luis Arnalde

Hauts maitemin

Fedearen Dotrinaz arduratzen den Kongregazioak Argitaratu berria du “Ad resurgendum cum Christo” (Kristorekin berpizteko) instrukzioa. Koldo Aldai kazetari eta poetak dioenez, oraingoan huts egin du hainbeste aldiz defendatu eta miretsi duen Frantzisko Aita Santuak. Oraingoan atzera pauso handi samarra eman omen du. Niri ere horrelaxe iruditzen zait, gol handi samarra sartu diotela Frantziskori.

Hildakoekiko behar dugun jarreraz mintzatzen da aipaturiko instrukzio hori. Elizak betidanik defendatu du hildakoen gorpuak hilobiratzeko tradizioa. Baina 1963an onartu zuen hildakoak erraustea. Gaur, beraz, errausteko edo hilobiratzeko aukera dugu. Ekarpene onak baditu dokumentu honek. Adibidez: hildakoekiko izan behar dugun duintasuna azpimarratzen du askotan; izan ere, halako ohitura zabar eta inozoak zabaltzen ari dira gure artean... Arrazoi du elizak hildako hondakinentzat gune egoki eta es-

tetikoki ederra aukeratu behar dela esaten duenean. Leku goxo batean errazago suma dezakegu beren gertutasun misteriotsua.

Baina, alderdi baikor hori aipatu ondoren, instrukzioaren zenbait iritzi ez dira oso zuzenak edo gutxienez nahiko eztabaidagarriak:

1- Ez al zen egokiagoa sujeritzea edo iradokitzea inposatzea baino? Adibidez: “errautsak gorde behar dira gune sakratu batean, hau da, kanposantuan edo autoritate erlijiosoak horretarako jarrita daukan lekuan”. Gomendatu egiten zuela esan behar zuen. Gainera, zein da eliza leku bat sakratu bezala definitzeko? Lur osoa ez al da sakratua? Batzuentzat Gorbea edo Txindoki sakratuagoak dira katedralak baino. Jainkoak berak ez al ditu aukeratzeko mendiak (Sinai, Tabor, adibidez) bere manifestapen handiak egiteko? Gizakiak bihurtzen du gune bat sakratu eta ez alderantziz.

2- Elizak nahiago du gorpuak hilobiratzeko erraustea baino; hala ere, iritzi hau eztabaidagarria da. “Hildakoeki-

ko estimu handiagoa agertzen da” errausketarekin baino, dio dokumentuak. Nonbait hilobiratzeko nekezago ahaztuko ditugu hildakoak eta erreztatu ere gehiago egin genezake beren alde. Beste une batean dio: “heriotzan arima eta gorputza separatu egiten dira, baina, Jainkoak elkartuko ditu berriro berpiztueran”. Platonen pentsaera da hau, ez kristaue-na. Kristauontzat berpiztuera Jainkoaren erregali bat da.

3- Dokumentuaren azken paragrafoak honela dio: “Hildakoak erabaki balu bere errautsak naturan zabaltzea fedearen kontrako arrazoiengatik, ospakizun erlijiosoa ukatu egin behar litzaioke”. Norbaitek erabaki hori hartzen badu, ez du eskatuko elizan ospatzea bere hileta. Baina eskatuko balu, adierazi beharko litzaioke probokazioa besterik ez dela bere desira hori. Dena den, zenbat ezkontza, hileta, bataio eta beste errito asko ez da egiten ekintza sozial huts gisa; kontsekuenteak bagina ukatu beharko genieke horiei ere. Nire ustez hileta duin eta gozo bat egin behar zaio eska-

tzen duen pertsona orori, bere sinesmena neurtzen edo kalibratzen hasi gabe.

Errautsez hitz egiterakoan beti gogoratzen zaizkit F. de Quevedoren bertsoak: “seremos ceniza, pero con sentido; polvo seremos, mas polvo enamorado”. Juan Gartzia honela itzultzen ditu: “errauts bilaka, baina sen bereko; hauts bihur; hala ere, hauts maitemin”. Ez dut ezagutzen pertsonaren definizio ederragorik.

Nire sendiko Aita Gaztelu poetaren lerro batzuekin bukatu nahi nuke gogoeta hau. Honela dio:

“hil nadinean igo nazazue,/ lagunok, Larte mendira; bere magalean eder zait / betiko atsedena...

Goiko borda zenaren bazter/ une isilean

ni ehortzi eta pago bat landa/ aldamenen...

Haraño nor edo nor badoa / mendi ibiltari egin dezala aho batean / kantari”.

Larte da gazteluarrontzat mendirik kuttunena. Apaiz eta olerkariarentzat baita leku sakratuena ere.

Imanol Ubeda | Aritz Gorriti | **Luis Arnalde** | Maialen Unanue | Luken Arkarazo | Idoia Torregerai

Ika-Mika

EAJ, PSE-EE: egin ezazue herri honen alde

Uurbilgo herritarrok urteak daramatzagu Zubietan jarri nahi duguten errauste plantaren aurka. Zama handi hau gainera etorri zitzaigunean, ohartzen hasi ginen errausketak sortu ditzakeen kalteez. Hainbat hitzaldi entzun izan ditugu, eta

tripako min handiarekin etxera itzuli ere bai. Hitzaldi haietako batean behintzat han izan zinenen, gaur egun EAJ-ko udal taldea osatzen duzuen batzuk. Faltan botatzen dut orain dela urte batzuk, nire zinegotzi garaian EAJko zinegotzia izan zen Iñaki Ilarramendiren jarrera gai

honen inguruan.

Orain erabakiorrak diren egun eta aste hauetan, zuek minbiziaren pareko jarri zaitzuten pintaketak gaitzetsi besterik ez duzue egin. Usurbil asko maite omen duzue, eta egia izango da, baina herritarrok ezer gutxi balio dugu

zuentzat edo zer uste duzue, minbizia ere ez dela zuen ingurura helduko? Edo zuen umeak libre daudela mehatxu honen aurrean?

Berriz ere eskatzen dizuet, egin ezazue herri honen alde.

Lontxo Zubiria

Amaitu dute 5 hilabeteko greba

Duela bost hilabete hasitako greba mugagabea amaitutzat eman du Ingemarreko langileen batzordeak. Azken hilabeteotan, Ingemarreko langileak, zuzendaritza eta erakundeek eginiko negoziazio prozesua akordio batekin borobildu berri dute. Akordioa, azaroaren 17an egin zuten batzarrean onartu zuten langileek.

“Lortu den akordioaren arabera 51 laguneko taldea mantenduko da, Usurbilen jarduera produktiboa bermatuko duen Bideragarritasun Plana egingo da, akziodunen batzarrak kapitala zabaltzeko erabakia hartuko du, eta proiektuan erakundeak inplikatu dira”, jakinarazi du ohar bidez, Ingemarreko langileen batzordeak.

Akordio hau sinatu eta gauzatzeko jorrazteko bide bat dagoela jakin arren, bide horretan garaipen garrantzitsua da aldeek erdietsi duten akordioa. Adostasunera heltzeko giltzarritzat jo dute hilabeteotan egin duten borroka. “Usurbilgo Ingemarreko langileen borroka



Langileek hilabeteak egin dituzte Ingemar atarian, protestan.

LANERA BUELTAN

“Akordio honekin, greba mugagabea amaitutzat eman dute Ingemarreko langileek”

beste behin erakutsi du enpresa bat deslokalizatze saioen aurrean, batasuna, borroka eta borondate irmoa direla giltzarriak, enpresen erabakiak aldarazi eta geure industria-sarea mantentzeko”, gogorarazten dute.

Horren erakusgarri hilabeteotan, inbertitzaileak bilatzeko egin duten ahalegina edota bost hilabetez luzatu den greba mu-

gagabea. “2016ko urtarrilean jakin zutenetik enpresak jarduera industrial bukatzeko erabakia hartu nahi zuela. Langileek, ELAko 4 delegatu eta LABeko 1ek ordezkatzan dituztelarik, inbertitzaileak bilatzeko prozesuari ekin zioten; hainbat kasutan fruitua ematekotan izan zen, baina azkenean denak hutsean geratu ziren. Orduan, zuzendaritza derrigortu genuen lantegiari irtenbide industrial bat ematera. Ez geunden itxiera, ez jarduera industrialaren bukaera onartzeko prest. Horregatik, ekainean mugagabeko greba hasi genuen. Hasieratik langile guztiak jarraitutako gre-

bak taldearen jarduera tratatu du, eta zuzendaritzak proposamenak egin behar izan ditu, akordioa iristeraino”, deskribatu du Ingemarreko langileen batzordeak.

Akordioa zehazteke

Akordio honekin, greba mugagabea amaitutzat eman dute langileek. Lanera itzuliko dira, nahiz aipatu moduan, erdietsi berri duten akordio hau gauzatzeko ere bide bat jorratu beharko duten orain.

Eskertza

Greban egon diren bost hilabeteotan zehar, lantegi ataritik igarotzerakoan elkertasuna adierazteagatik herritarrek eskertu nahi dituzte Ingemarreko langileek. Baita errifak saldu nahiz erosten lagundu duten tabernari eta herritarrei. Usurbilgo Udala ere eskertu nahi dute, negoziazio prozesuan zehar eman duen laguntzagatik. Eta Usurbil F.T., futboleko dabiltzan zenbait gurasoren seme-alabak laguntzeko erakutsi duten prestutasunagatik.

Ostegunean eta larunbatean, lan uzteak Euskotrenen

Urriaren 25az geroztik lan uzte partzialak egiten ari dira Amara eta Arasoko Euskotreneko lan-egoitzeko langileak. Zerbitzu publikoak guztiok erabiltzeko aukera izatea eskatzen ari dira, zerbitzuen maiztasuna eta kontratu finkoa duten langileen kopurua handitzea.

“Uztailetik, zuzendaritzak ez du gurekin negoziatzera eseri nahi”, adierazi dute langileen batzordetik. “Agian, zure babesarekin kasu gehiago egingo digute. Erabili zure eskubideak geltokietan, Eusko Jaurlaritzaren erreklamazio orriak eskatuz”, diote langileek, erabiltzaileen artean asteotan banatu



Ostegun eta larunbat honetan lan uzteak egingo dituzte.

dituzten esku orrietan.

Gutxieneko zerbitzuak

Lan uzteok tarteko, gutxieneko zerbitzuak finkatu dira urte amaiera honetarako, Usurbildik igarotzen den Zumaia-Donostia tren zerbitzuan, baita Lasarte-Oria Hendaiarekin lotzen duen linean ere.

Datozen lan uzteak

Azaroak 24, osteguna

Gutxieneko zerbitzuak, Zumaia-Donostia eta Lasarte-Hendaia arteko lineetan, 6:25-8:35 eta arratsaldeko 17:25-19:35 artean. Gainerakoan, lan egunetako ohiko ordutegia.

Azaroak 26, larunbata

Gutxieneko zerbitzuak, Lasarte-Hendaia arteko lineetan, 6:25-8:35 eta 11:55-16:05 artean. Gainerakoan, larunbateko ohiko ordutegia.

Azaroak 28, 30 eta abenduak 2

Gutxieneko zerbitzuak, Zumaia-Donostia eta Lasarte-Hendaia arteko lineetan, 7:25-9:35 eta 18:25-20:35 artean. Gainerakoan, lan egunetako ohiko ordutegia.

Lan uzteen egutegi osoa eta informazio gehiago:

euskotren.eus

@euskotrenEJGV (Twitter)

Euskotren Amarako Langileak

(Facebook)

@EuskotrenAmara (Twitter)

Erraustegia, ikertu ahala arriskutsuagoa

Zenbat eta gehiago ikeritu, orduan eta datu kezkarriagoak biltzen ari da Errausketa eta Osasuna Ikerketa Taldea (OEIT). Argi baino argiago utzi dute, erraustegien eta osasunaren artean lotura izan badela, ebidentea gainera. Nazioarte mailan egin diren kalitate hobereeneko azterketa epidemiologiko ospetsuenetatik ateratako datuetan oinarritzen dute ebidentzia hau. Orain, baita hainbat azterlan toxikologikoetatik bildutako informazioan ere.

Azken aldiaren egin duten lanketari loturiko hainbat datu berri aurkeztu zituzten astelehenean, taldeak Donostiako Koldo Mitxelena Kulturunean egin zuen agerraldian. Datu kezkarri eta guztiz eskandalagarriak, OEIT-ren esanetan. Esaterako, Zabalgarbiko erraustegiari buruzkoak. Legediak onarturikoaren oso gaitetik dago benetan tximiniatik aireratzen duten dioxina edo merkurio kopurua.

Mediku taldearen esanetan, gutxietsi ezin den beste emisioa, CO2arena da. Lehendik ere trafikoak edo industriaguneez eragindako CO2 isurketa nahikoa badugunez, errauste-



OEIT taldeak agerraldia egin du aste honetan Donostiako Koldo Mitxelengan.

OEIT MEDIKU TALDEA

“OEIT mediku taldeak esku artean dituen datu kezkarriak Gipuzkoako Foru Aldundiari aurkezteko saiakera bat baino gehiago egin du. Baina oraingoz ez du erantzunik jaso”

gia defendatzen dutenek diote ez dela hainbestekoa izango erraustegiak isuriko duen karbono dioxido kopurua. Kontrakoa diote OEIT-tik, eta ohar-tarazten dutenez, kutsadura partikula hauekiko zenbat eta esposizio handiagoa izan, orduan eta gehiago biometatzen

doaz partikulok gure gorputzetan, gaixotzeko arriskua areagotuz.

Kontrol maila eskasa

Zoritxarrez, panorama hau xe izan dezakegu Zubietako erraustegia eraiki eta martxan jartzen badute. Hori gutxi ez eta, “kontrol maila eskasa” izango du aipatu plantak, mediku taldearen esanetan. Bere jarduna 3 hilabete behin kontrolatzea aurreikusten baita eta honenbestez, ez dugu jakingo benetan zer eta zenbat gai toxiko jaurtiko dituen erraustegiak airera. Isurketa kopurua legediak baimentzen duenaren gainetik badago ere ezta, eta horrek honenbestez,

halako egoeren aurrean neurriak hartzea eragotziko du.

Legediak, bermerik ez

Erraustegiaren defendatzaileek diote, indarrean den legedia beteko dutela, baina OEIT-tik argi ohar-tarazten dute, horrek ez duela bermatzen erraustegiak gu guztion osasunean kalterik eragingo ez duenik. Ikusi besterik ez dago amiantoarekin zer gertatu den. “Osasunaren-tzat kaltegarria zela jakinda ere, 50 urte pasa dituzte kalteari mugak jartzen”, gogorarazten du mediku taldeak.

Horregatik, esku artean dituzten datu kezkarriok Gipuzkoako Foru Aldundiari aurkezteko saiakera bat baino gehiago egin dute. Baina gaurkoz ez dute erantzunik jaso. OEIT-k benetan beldurgarriak diren datuon aurrean, eta alternatiba ugari badirenez, arreta printzipioa aplikatu eta erraustegia ez eraikitzea eskatzen diote Aldundiari.

Laster, zientzia jardunaldiak

Zientzia jardunaldi batzuk antolatzekeak omen dira laster. Diputazioak dituen adituek ere bertan parte hartzeko desioa agertu zuten, asteleheneko agerraldian.

Erraustegiaren ingurua, arriskuan

■ Heriotza tasa orokorra %19 hazi daiteke inguruko herritarren artean.

■ 10 kilometrotara, minbizi kasuen kopurua %3,5 igo daiteke.

■ Minbizi mota batzuk gehiago: giblekeoa %29, biriketako %14.

■ Sortzetikako malformazioak, abortuak, gaixotasun kardiobaskularrak, biriketakoak ere areagotu ditzake.

Azterlan toxikologikoak

■ Zabalgarbiko erraustegia:

235.000 tona CO2 isuri zituen 2014an. 165.000 ibilgailuk urtean 10.000 kilometro ibilita sortzen duten adina CO2.

■ Gaixotasun askoren eragile den arseniko kopurua hirukoiztu da Zabalgarbi inguruan. Munduko Osasun Erakundearen arabera, oso gai arriskutsua da, gaixotasun askoren eragilea.

■ Zubietako erraustegiak eguneroko aireratuko duen baimendutako dioxina eta merkurio kopurua, 3.780.000 haurrek edo 1.260.000 helduek arnastu edo irentsi dezaketena izango

da. “Guztiz eskandalagarria” OEIT-tik diotenez.

■ Baimendutakoa baino 250 aldiz merkurio gehiago isuriko luke Zubietako erraustegiak.

■ Ez ahaztu, Zubietako erraustegiaren 30 kilometroko eragin eremuan, 69.000 haur baino gehiago daude, 35.000 haur 5-10 kilometroko tartean.

Kontrolrik ez

■ Isurketen kontrolak hiruhilabetekoak izango lirateke.

■ Erraustegiaren dioxina emisio denboraren %0,3 kontrola-

tuko luke.

■ Dioxina mota batzuk eta metal astun batzuk baino ez dira kontrolatuko. Erraustegiak isuriko lituzkeen beste gai asko ez.

OEIT-k baliatu dituen informazio iturriak:

Osasunaren Mundu Erakundea, Tecnalia (Zabalgarbiri buruzko azterketa egin zuen 2014an), edota Zubietako erraustegiari Jaurlaritzak emandako ingurumen baimen bateratua.

Abenduaren 27an, erraustegia eraiki eta kudeatzeko lanen esleipena

Gipuzkoako Hondakinen Kontsultazioak datoren abenduaren 27an erabakiko du nork eraiki eta kudeatuko duen Zubietako erraustegia. Esleipena gauzatu, urte berriarekin batera hasi asmo dituzte eraikitze lanak. 30 hilabetez, hau da, bi urte eta erdiz luzatzea aurreikusten dute. Eta legegintzaldi amaierarako, erraustegia 2019ko udaberrirako martxan egotea aurreikusten du Gipuzkoako Foru Aldundiko ingurumen diputatu Jose Ignacio Asensiok.

3 enpresa talde lehian

Erraustegia eraiki eta kudeatzeko Gipuzkoako Foru Aldundiak deitutako lizitaziora hiru enpresa talde aurkeztu dira:

■ Construcciones y Promociones Balzola, S.A; Valoriza Servicios Medioambientales, S.A; Valoriza Gestión, S.A.

■ Meridiam Investments SAS; Urbaser S.A; Altuna y Uria S.A; Construcciones Moyua S.L; Construcciones Murias S.A; LKS Ingeniería S.COOP.

■ FCC eta Sartech Engineering.



Urte berriarekin batera hasi asmo dituzte errauste-plantaren eraikitze lanak.

2019AN MARTXAN

“Erraustegia 2019ko udaberrirako martxan egotea aurreikusten du Gipuzkoako Foru Aldundiko ingurumen diputatuak”

Lizitazioa geratzeko eskaera

Guraso taldetik argi diote, “abenduaren 27an ez da ezer amaitzen”. Are gehiago, abian dauden prozesu judizialek esleipena gerarazi dezakete gero.

Eta hala gertatuko balitz, gipuzkoarron altxor publikoaren kalterako litzatekeenez, prozesu hau gelditzea eskatzen du GurasoSek. Zehaztu dutenez, hiru errekurso dituzte martxan; Ingurumen Baimen Bateratuaren, lizitazioa hastearren eta parte hartze prozesu bat ez irekitzearen aurka hain zuzen. Laster espero dituzte, beranduenez urte amaierarako, errekurso hauen ebazpenak. GurasoS defenda-tzen ari denaren aurkako ebazpenak balira, goragoko instantziatara jotzeko asmoa agertu du guraso taldeak.

Erraustegiaren Aurkako Taldeak batzarra deitu du azaroaren 29rako Potxoenean

Erraustegiari buruzko herri galdeketa bukatu ondoren, berriro ere martxan da Usurbilgo Erraustegiaren Aurkako Taldea. Galdeketa gauzatzeko lanetan buru-belarri aritu dira azken urtean, eta orain ohiko dinamikari heldu diote berriro. Batzarra deitu dute hurrengo astearterako.

“Datorren azaroaren 29an, asteartea, arratsaldeko 18:30ean Potxoenean bilduko gara, eta deialdi zabala luzatzen diegu herritar guztiei. Erraustegiaren aurkako bo-



Azaroaren 29an, arratsaldeko 18:30ean elkartuko dira Potxoenean.

rrokan erreferentzia den gure herriak, une garrantzitsu honetan, errauste-plantaren mamua gain-gainean daukagunean,

erantzun irmoa emateko antolatuta jarraitu beharrean gara. Horretan ahalegin guztiak beharrezkoak dira”.

San Tomas Azokarako babarruna eta sagardoa prestatzen hasi

Datorren astelehenerik aurrera ekarri ahalko duzue NOAA!ko egoitzara San Tomas Azokako lehiaketetarako babarrun eta sagardoa. Hemen dituzue txapelketotan parte hartzeko bete beharreko baldintzak.

Izen ematea:

■ Azaroaren 28tik abenduaren 2ra eta abenduaren 12tik 15era, NOAA!ko egoitzan.

■ Ordutegia: astelehenerik ostiralera, 10:00-14:00/16:00-19:00.

■ Informazio gehiago: 943 360 321.

Sariak:

■ Lehenari: 150 euro, txapela.

■ Bigarrenari: 90 euro, kopa.

■ Hirugarrenari: 50 euro.

Sagardo lehiaketa:

■ Oharra: sagardotegiek ezingo dute parte hartu.

■ Partaide bakoitzak 8 botila ekarri beharko ditu, eta botila bakoitzeko 1,5 euro ordainduko zaio.

Babarrun lehiaketa:

■ Partaide bakoitzak kilo bat babarrun ekarri behar du eta 12 euro ordainduko zaio.

Ezaugarri hauek hartuko dira kontuan:

■ Itxura: osorik edo hautsita dagoen, zimurrak...

■ Kolorea: zenbat eta beltzagoa orduan eta hobeagoa.

■ Berdintasuna: tamainaz, kolorez... elkarren berdinak izatea.

■ Dizdira: berezko dizdira beste edozein produkturkin (olio, abrilantadore...) estali edo aldatua izaten bada lehiaketatik kanpo geratuko da.

■ Garbitasuna: partikula arrotzik ez izatea.

Elikagaien bankuarekin lankidetzan indartzea eskatzen du PSE-EEK

Horretarako, tokiko saltoki eta ostalaritza establezimenduak inplikatzeko eskatu dio Udalari ohar bidez, Usurbilgo PSE-EEK. “Elikagaien Bankuarekin elkarlanean aritzeko eta lankidetzan hori gure udalerriko merkataritza eta ostalaritzara zabalitzeko konpromisoa har dezala eskatzen diogu, kontsumorako egokiak diren baina salmentarako baztertuta dauden elikagaiak bildu eta aprobetxatzeko helburuarekin”, zehaztu du alderdi sozialistak.

PSE-EE-tik bigarren eskaerak ere zuzentzen diote Udalari; “elikagaien kontsumo arduratsuari buruzko heziketa eta kontzientzia-kanpainetan bete-betean inplikatzeko konpromisoa har dezala eskatzen zaio”.

Eraginkortasunean irabazi nahi

Mozio batean bildu dituzte bi eskaerok. Mozioa jada Udalean erregistratu dute, Fermin Orue bozeramaileak berri eman duenez. Udalak “saltoki eta ostalaritzaren laguntza, elkartasunaren sustapenean “eragile eraginkorra” izan behar du kontsumorako egokiak izanik, salmentarako baztertzen diren elikagaiak bildu eta aprobetxatzeko laguntzeko”. Orueren esanetan, jateko moduan egon arren, arrazoi estetikoengatik bakarrik produktu gari hondakineta botatzen



Kontzientzia-kanpainetan bete-betean inplikatzeko konpromisoa har dezala eskatzen dio PSE-EEK Udalari.

ELIKAGAIEN BANKUA

“Urtero moduan, Gipuzkoako Elikagaien Bankuak azaroaren 25ean eta 26an egingo du elikagaien bilketa handia, herrialdeko 75 saltokietan”

dira. Kezkarri eta larritzat jotzen dute gertatzen ari dena. “Xahubide honen ondorioak kezkarriak dira oso. Izan ere, larria baita xahutzea langileen eskulanaren ahaleginak, baliabide hidrikoak eta alferrik galduko den elikagaia ekoizteko erabilitako energia. Eta gainera, ez diogu behar duenari janaririk ematen. Fruta, lekale eta barazkien kasuetan adibidez, bota egiten dira txikiak, handiak edo itxura edo kolore itsusia izategatik, nahiz eta propietate nutritibo guztiak mantendu. Hau dela eta, supermerkatuek eta saltokiek kadukatzear dauden produktuak soberan izaten dituzte

eta zaborrera bota baino lehen, behar dagoen familiei ematea egokiagoa dela uste dugu”.

Elikagaien bilketa

Urtero moduan, Gipuzkoako Elikagaien Bankuak azaroaren 25ean eta 26an egingo du elikagaien bilketa handia, herrialdeko 75 saltokietan. Iaz, 626.850 kilogramo elikagai bildu zituzten; 2014an, 575.000.

Laguntzeko bi modu daude. Batetik elikagaiok erosita: kakao-hautsa, gailetak, arrain edota berdura kontserbak, olioak, garbitasuneko produktuak, pixoihalak, eta haurrentzako era guztietako elikagai eta produktuak. Bestela, 3 edo 5 euroko bonoak eskuratu daitezke. Bonu horiei esker, Elikagaien Bankuak beharra duenean elikagaiak erosi ahalko ditu eta, gainera, biltegiatze eta garraio arazoak saihestu ahal izango ditu.

■ Informazio gehiago: bancoalimentosgipuzkoa.org

Santa Zezilia ospakizunak Zumarten

■ Ostegunean, azaroak 24, Musika eskolatik kalejira abiatuko da 18:00etan: Musika Txokoa 1. eta 2. maila, Musika Mintzaira eta 1. mailako ikasleak, Trikitilari-Panderojoleak, Musika Eskolako Txaranga, dantza taldeko ki-deak gonbidatuta daude bertan parte hartzera. Kalejiran zehar bi abesti dantzatu dira, “Maketume” eta “Alunelul”.

■ Azaroak 24 osteguna, 19:00etan Sutegin Musika Eskolako taldeen kontzertua.

■ Azaroak 26 larunbata, goizez, Zumarte Musika Eskolako ganbaran 0-3 urte bitarteko haurrentzat “Lalala soinu gela” musika tailerra. 0-3 urte bitarteko 33 haur-familiek eman dute izena.

Gazte Koruen Tailerra

Zumarte Abesbatzako gazteek Gipuzkoako Abesbatzen Federazioak antolatuta duen Gazte Koruen IX. Tailerlean parte hartuko dute. Asteburu honetan, Hondarribian. Igande arratsaldean, Donostiako Tabakalera guztientzat irekia izango den kontzertu batekin amaituko da asteburua.



‘Musikalean’ ostegun honetan ospatuko da.



EGUNEKO MENUA KARTA
PLATER KONBINATUAK
OGITAR TEKOAK TOSTAK
MENU BEREZIAK

ARTZABAL
BASERRIA · JATEETXEA

943 36 91 39

www.artzabaljateetxea.eus



Okindegia-Gozotegia

LABE-GOXO



Patria Jateetxea

bazkariak EGUNERO
afariak. asteazkenetik larunbatera

© 943 362725 · © 688 690 361

Imanol Urbietaren omeneko kantu-jira

Kantu zaleen hitzordu berezia izango dugu larunbatean. Musikari handi bat omenduko baitu Zarauzko eta Usurbilgo herriak; udazken honetan gure arte-rik joan den Imanol Urbietari. Kantu Taldeko gidari berriak, Manolorekin harreman estua zuen Jaione Eskudero aurreratu dizkigu ekitaldiko xehetasunak, denok abestera gonbidatzearekin batera.

Zer berrikuntza dakartza datoren kantu-jirak?

Jaione Eskudero: Santa Zezilia azaroaren 22an izango denez, egun hori ospatuko dugu eta Imanol Urbietaren omenez egingo dugu kantu-jira. Usurbilgo eta Zarauzko txistulariek, Zarauzko abesbatzak eta zarauztarrek ere parte hartuko dute. Ia Zarautzek eta Usurbil-ek batera egiten diogun Imanoli merezitako omenaldia. Kontxi Aizarna emaztea ere etortzekoa da.

Zubi lana egiten ari zara bi herrien artean. Zer moduzko harrera izaten ari da deialdia?

Hemengo erantzuna zoragarria. Zarauztarrena ere bai. Ahal duena etorriko da eta ilusio handiz gainera.

Imanol zure ibilbideari oso lotua egon da.

Berari esker naiz ni naizena. Berak eman dit zeukan musikarako bizitza, berak helarazi dit musikarekiko sentitzen zuena.

Zer zen musika eta kantua berarentzat?

Berarentzat dena musika zen. Dena. Bere bizitza musika zen eta hori transmititu egin zuen herrian. Zarautz oso herri musika zalea baita, nik uste kultura hori berak sortu zuela. Berarekin ibili garen guztiok dugu musikarako grin hori.

Aurrera begirako erronka, berak utzitako ondarea bizirik mantentzea izango da?



“Santa Zezilia azaroaren 22an izango denez, egun hori ospatuko dugu eta Imanol Urbietaren omenez egingo dugu kantu-jira”, Jaione Eskudero esan digunez.

JAIONE ESKUDERO

“Imanol Urbietari esker naiz ni naizena. Berak eman dit zeukan musikarako bizitza, berak helarazi dit musikarekiko sentitzen zuena”

Bera joan zaigu, eta orain, bere lana bizirik irauten lagundu behar dugu. Asko ikasi zuen Manolok, gero lan hori plazaratzeko. Hori ez galtzeko guk egin behar dugu segida lan hori.

Belaunaldi oso bat hazi gara bere abestiekin eta zure aholtsarekin.

Ez dira abestiak bakarrik, abesti pedagogikoak dira, erritmoari lotuak, eta ez umeentzat bakarrik helduentzat ere bai.

Pirritx, Porrotx eta Marimototsen lan berriak ere Imanol Urbietari omentzen du. Zuk ere proiektuan parte hartu duzu.

Zarauztarrek parte hartzea nahi zuten eta hala deitu ziguten. Guk geure abesbatzakoe-kin eta haur talde batekin parte hartu dugu. Nik ere tartean abesten dut.

Inoiz entzun ez ditugun abesti batzuk ba omen dira “Haizearen herria” lan berrian.

Berri batzuk ere badaude bai, berak hil arte lanean jarraitu baitu. Azken momentura

arte kanta pila sortua zuen. Egutero goizeko zortzietan jaikitzen zen, eta arkatx edo boligrafoa eskatzen zuen, bere partitura, eta lanean jartzen zen. Beti esaten zidan, Jaione etorri egin behar duzu, zenbat kanta egiten ditudan ikustera! Azken aldiaren aiton amonentzako abestiak sortzen ari zen.

Musikak eragiten digun onuraren adibide argia.

Musikak eman dio bizitza, poza, ilusioa.

Larunbat honetan kantuan omenduko da beraz Imanol Urbietari.

Kantu asko daude. Ikastolan ere landu ditugun lanak ere bai. Animatzen ditugu ikastolako umeak ere gurekin elkartzera. Abestera etortzeko lotsarik ez izan. Ez geratu gogoz. Helduentzako kantu asko sortu zituen Manolok. Bere Zarauzko lehenengo Oleskariak abesbatzaren garaian sortutako hainbat abesti kantatuko ditugu: “Goazen mutilak”, “Elkar gaitzen”, edota Usurbilerako moldaturiko “Agur herria”.

Jendurrean abesten kostatzen omen zaigu. Pixkanaka soltura hartzen ari al gara?

Jendeak pentsatzen du gaizki abesten duela eta gaizki inork ez du abesten. Denok balio dugu abesteko. Norberak barrutik ateratzen zaiona abesten du eta hori beti ondo abestua egongo da.

Kantu Taldeko gidari

Aurrerantzean, kantu taldeko gidaria izango zara. Nola heldu diozu erronka berriari?

Jaione Eskudero: Susi Elosegiren lekukoa hartuko dut. Mikel Usabiagak proposatu zidan. Ezezkoa kosta egiten zait esatea, denboraz juxtu nengibilen, baina tarte bat hartu dut, ilusio handiz gainera. Erronka berri hau onartu dut, pentsatuz Usurbilen baten bat egongo dela lan honi jarraipena emateko gogoz egon daitekeena.

Kantu Taldearen ikastaroa ere zuzenduko duzu.

24 bat lagun elkartzeko gara, oso gustura egoten gara. Ordubetaz aritzen gara asteartero, 18:30-19:30 artean Udarregi Ikastolako kantu gelan. Lotsa alboratu eta etorri. Edozein uneetan izena eman eta parte hartzen hasi daiteke.

Zer moduz ikusten duzu kantu zaletasuna Usurbilen?

Oso bizirik. Orain erronka dugu eserita gelditzen den jendearekin. Eserita egon beharrean, egin behar dute altxatu eta gurekin abestu.

Kantu Taldearen hitzorduak

Azaroak 24, osteguna

■ 18:30-19:30 Kantu-jira prestatzeko entsegua txistulariekin, Udarregi Ikastolako kantu gelan.

Azaroak 26, larunbata

■ 19:00 Imanol Urbietaren omenez kantu-jira berezia, Mikel Laboa plazatik abiatuta.

Oharrak:

■ Kantu-jirarako kantu liburuxka berriak eskuragarri NOAUA!n, 5 euroren truke.

■ Kantu Taldearen entsegua, asteartero 18:30-19:30 artean Udarregi Ikastolako kantu gelan.

Osasunari eta adostasunari bide emateko

LARUNBAT HONETAN MANIFESTAZIOA DONOSTIAN, GURASOS TALDEAK DEITUTA

Taldearen bide orria basteu, erraustegiaren lizitazioa gelditzea eskatu eta gai honen inguruan adostasuna lortzeko garaiz gaudela aldarrikatuko da larunbat honetan, azaroaren 26an Donostiako kaleetan, GuraSOsek deitu duen manifestazio erraldoian. 17:00etan abiatuko da Amarako Euskotrenen geltoki pareko Araba parkea eta Mendeurren plaza ingurutik eta Alderdi Ederren amaituko da.

Erraustegiak seme-alaben osasunean izan dezakeen eraginagatik kezkatutako guraso taldeak, “gizarte osoari dei egiten dio guztion artean adostutako irtenbide bat bilatzeko. Guztion erantzukizuna delako”.

“Irtenbidea guztion eskuetan dago”

Gipuzkoarrantzat hobea den bide alternatibo bat jorratu nahi dugula eskatuko da mobilizazio honetan. “Gai honen irtenbidea guztion eskuetan dago, zure eskuetan dago, eta manifestazioarekin jendeari aukera eman nahi diogu azal



Manifestazioa 17:00etan abiatuko da Amarako Euskotrenen geltoki pareko Araba parkea eta Mendeurren plaza ingurutik. Alderdi Ederren amaituko da.

GURASOS

“Gipuzkoarentzat eta gure osasunarentzat gehiago nahi dugulako. Gure seme-alabentzat gehiago nahi dugulako, beraientzat onena dena. Eta hori guztion artean egingo dugu”

dezaten horixe bera, beste bide bati ekin nahi diogula gipuzkoarrok. Gipuzkoarrantzat hobea den bide bat”, azaldu dute manifestazioko deitzaileek.

Hondakinen gaian hain

zuzen, GuraSOsek “ahalik eta berme gehien edo kalte gutxien irtenbideari eman behar zaiola bide uste du eta hainbat galdera planteatzen ditu: Possible al da arrisku edo eraginik egongo ez denaren bermea edukitzea? Egon al da errausteketa baino seguruagoak eta bideragarriagoak diren beste aukerei buruzko benetako eztabaidarik? Beharrezkoa al da erraustegia egitea? Garaiz al gaude birpentsatzeko? Galdera asko daude airean, eta asko dago oraindik hitz egiteko eta adosteko”. Eta oraindik garaiz gaudela diote, “izan ere, inoiz ez da berandu segurtasuna

areagotu eta osasunarentzat eragin txikiena duen hondakin tratamendua bilatzeko”.

Inposizioaren garaia atzean utzi eta adostasunaren bideari heltzeko eskatzen dute. “Gai hau liskar eremutik atera behar dugu. Gainditu egin behar dugu konfrontamenduaren garaia. Eta horretarako eredu propioa sortu behar dugu, hemengoa, Gipuzkoakoa. Gipuzkoa onena nahi dugulako. Gipuzkoarentzat eta gure osasunarentzat ere gehiago nahi dugulako. Gure seme-alabentzat gehiago nahi dugulako, beraientzat onena dena. Eta hori guztion artean egingo dugu”.

Antolaketaarako laguntza beharrean

“Gipuzkoa +: eman bidea Osasuna eta Adostasunari” aldarripean egingo den manifestazioaren prestaketa lanetarako eta egunean bertan sortuko diren lanetarako laguntza beharko du GuraSOsek. Taldeak “deia egiten du manifestazioa prestatzen zein egunean laguntzeko prest daudenei komunikazioa@gurasos.org helbidera idatz dezaten”.

Irtenbide partekatuen alde

Hondakinen afera konpontzeko, gizarte eta politika zatiketa eta eremu politikoa gaindituko duen irtenbide partekatua beharrezkotzat jotzen du GuraSOsek. “Funtsezkoa da desiratutako akordio politiko horrek gizarte oinarri sendoa izatea. Ezinbestekoa da herritarren partaidetza aktiboa eta aitzindaria”, azpimarratu dute guraso taldeak.

Zentzu horretan, aditu eta teknikariek protagonismoa

eman behar zaiela diote. “Arzoa gehiegi politizatu izanak gizartearen urruntzea ekarri du, eta mesfidantza. Propagandak ordezkatu du informazioa. Normaltasuna eta herritarren konfiantza berreskuratzeko beharrezkoa da gizarteratze berri bat eta aditu eta teknikariren protagonismoa”, adierazi dute.

Europako gomendioak

Segurtasun juridikoa eta egoera legezatu behar dela diote. “Azken buruan segurtasun

juridikoa behar da eta egoera legezatzeara. Planaren azken berrikuspena 2008an egin zen. Beranduenez, 2014an berrikusi behar zen. Ez da oraindik egin eta hortaz, legearen aurkako egoera batean gaude, ebaluazio eta berrikuspen eta herritarren partaidetzarik gabeko plan batekin, herritarren partaidetza beharrezkoa denean berrikuspen horietan. Legedia hondakinen gaitan hobekuntza jarraituaren politikan oinarritzen da, beranduenez sei hilabetean

behin hondakinen gaineko planak derrigor ebaluatu eta berrikusi behar dira (Hondakin eta lurzoru kutsatuei buruzko uztailearen 28ko 22/2011 Legearen 14.5 artikulua). Helburua bistakoa da, osasuna eta ingurumena babestea, horretarako teknika eta estrategia eraginkorrenak baliatuz eta irtenbideak gizartearen ohitura aldakor eta kontzientzia mailara egokituz, eta halaber Europatik hondakinen gaian datozen gomendio eta politika jarraituz”.

Konponbiderako 8 puntuko bide-orria

■ **Berehalako erabakia hondakinen kudeaketarako azpiegituren lizitazio eta kontratazio prozesuetan atzera egiteko edo haiek geldiarazteko.** Epe laburrera zerbitzua emateko beharrezko diren bitartekoak kontratatzeko.

■ **Legeztatzea:** Paraleloki premiaz ekitea Gipuzkoako Hiri-Hondakinen Kudeaketako Plan Integrala berrikusteko izapideei.

■ **Gizartratzea:** Foru Aldundiaren baitan mahai soziala sortzea hondakinen kudeaketarekin lotutako herritar elkarte eta mugimenduen presentzia eta partaidetza bermatzeko.

■ **Informazioa eta gardentasuna:** Mahai tekniko bat sortzea Foru Aldundiaren baitan osasun publikoaren gaian eta hondakin kudeaketan aditu eta teknikari direnen presentziarekin, Foru Gobernuaren proposamenez, foru parlamentuko



Osasunaren babesa eta gizarte kohesioa lehenestea eskatzen du GuraSOsek.

talde politikoen proposamenez eta halaber elkarteen proposamenez izendatuak.

■ **Partaidetza bidezko hausnartze prozesua:** 3. eta 4. puntuan aurreikusitako mahaiak Hondakinen Foru Planaren berrikuspenaren tramitazio prozedurara bilduko dira, indarreko legediak aurreikusi bezala.

■ **Osasunaren babesa eta gizar-**

te kohesioa: Prozesuan parte hartzen dutenek jarraibide komun partekatatu batetik abiatzen dira: osasun publikoari eta ingurumenari berme gehien eskaintzen dizkion irtenbidearen bila aritu eta era berean gizarte kohesioaren aldetik maila gorenak lor ditzakeena.

■ **Hobeto egokitzea gaiari buruz Europatik datozen politi-**

kei: Irtenbideak izan behar du baliabideen erabilera eraginkorrari buruz 2015eko uztailaren 9an Europar Parlamentuak emandako Ebazpenari hobe-
kien egokitzen zaiona.

■ **Akordio eta irtenbide partekatua.** Ordezkaritza politikok lortuko dute aurre egin beharreko bi arazoei irtenbidea ematen dien akordio politikoa: hondakinen kudeaketari eta gizarte kohesioaren gabeziari, txanpon beraren aurkia eta ifrentzua balira bezala. Akordio horren zimenduak izango dira partaidetzazko hausnartze prozesuaren fruitu izango diren adostasun tekniko eta sozialak.

Informazio gehiago:

gurasos.org
blogagurasos.wordpress.com

Abenduaren 26, 27 eta 28an Usurbilen ospatuko den gabonetako parkerako begiraleak behar ditugu.

Begiraleek, aisialdiko begirale titulua eta EGA izan behar dute. Kurrikulum-ak aupa@aupakl.com helbide elektronikora bidali.

AUPA kultur lanak

Gipuzkoako Foru Aldundia
EUSKO JAILARITZA GOBERNO VASCO
GIZARTE KOHESIOA
USURBILGO USTAZ

noqua

ABENDUAK 11, IGANDEA
ZINEA

GLTIK
ZURÁ
IRAGANA, ORAINA ETA ETORKIZUNA

19:00 SUTEGIN

SARRERA: 6€. (Aldez aurretik Bordatxon, Lizardin eta Noaua!n)
Bazkideek 4€tan erosli ahal izango dute Noaua!ko egoltzan aldez aurretik

Espetxeak eta emakumezko presoak, azaleratzeke dagoen errealitatea

Azaroaren 25a dugu ostiral hau, euskal preso eta iheslarien eskubi-deak aldarrikatu ohi diren hilabeteko azkena, eta Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Eguna. Bi mobilizazio egin beharrean, bakarra egitea erabaki dute Matrakak Usurbilgo Talde Feministak eta Usurbilen Nahi Ditugu bilguneak. Bi eragileok, elkarretaratze bateratu bat deitu dute ostiral iluntzeko 20:00etan Mikel Laboa plazan.

“Arantza Zulueta presoaren kasua salatzeke erabiliko dugu”, iragarri dute. 2010az geroztik hirutan atxilotu duten abokatua, egun “Puerto III kartzelan dute preso, Cadizen, etxetik 980 kilometrotara”. Bakartua, 24tik 20 ordu ziega barruan. Bakartzetik atera eta libre uztea eskatuko da azaroaren 25eko mobilizazioan.

Elkartasun feminista ere azaldu nahi diote Euskal Herriko 40 bat eragileek egin duten moduan Zuluetak bizi duen egoerari, “genero alda-



Aurten, azaroaren 25ean elkarretaratzea Mikel Laboa plazan egingo da, 20:00etan.

AZAROAK 25

“Arantza Zulueta presoaren kasua salatzeke erabiliko dugu”, iragarri dute. Bakartzetik atera eta libre uztea eskatuko da

gaiak emakume presoengan, eta beraz, baita gure herriki-

de Olatz Lasagabasterrengan ere, duen eragina gehitu behar diogu, orokorrean espetxeak gizonezkoentzat prestatutako unibertso zurrunik baitira”.

Ondo baino hobeto dakite hori, espetxe barrua ezagutu duten euskal preso emakumezko usurbildarrek. Olatz Altuna eta Marisa Alejandroren lekukotzak bildu ditugu lerrootan.

Emakumeenganako Indarkeriaren

Aurkako Eguna

Azaroak 25 ostirala

Hitzaldia

■ 18:00 “Ez arros, ez urdin, jostailuak haurrentzat berdin” solasaldia Potxoenean. Hizlaria: Clara Wolfram.

Sarrera: Angela Carterren “Errauskine” ipuina moldatuta, Ixabel Agirresarobe herritarren eskutik.

Elkarlanean: Matrakak, Usurbilgo Udala eta Hitz Aho.

Elkarretaratzea

■ 20:00 Arantza Zulueta euskal presoak bizi duen egoera bidegabea salatzeke elkarretaratzea Mikel Laboa plazan. Eguraldi txarra eginez gero, frontoian.

Elkarlanean: Matrakak eta Usurbilen Nahi Ditugu.

Arratsaldean zehar

“Matxismoak eraildako emakumeen urratsak” oroitzen ekitaldia.

Marisa Alejandro, ia hiru urtez preso egondakoa: “

Marisak argi dio, “espetxeak gizonentzat diseinatuak daude”. 2007ko urritik 2010eko udaberrira arte, hainbat espetxe ezagutu zituen. Haietako bi, emakumeenak, “beste funtzionamendua dute” dio. Edota Valladolidakoa, oso presente daukana. “Pelikuletakoa dirudi”, adierazi digu. Bai behintzat jasotzen zuten tratuari dagokionean. Esaterako, medikuarengana “bi funtzionarioekin joaten ginen, beste preso gizonezkoekin ez elkar-

tzeko. Beste presoak etortzen baziren lurrera begiratzeko esaten ziguten. Guretzat oso gogorra zen. Gure kideekin topatzeko unea izan zitekeen, beste aukerarik ez genuelako. Baziren elkarren artean agurtu eta besarkatu ezin zuten ijito familiak. Ikaragarria. Aldiz, gizonak elkarren artean hitz egiteko arazorik ez zuten izaten. Emakume eta gizonak ordea, ezta pentsatu ere”.

Aisialdi tartean esaterako, gizonetakoekin zuten lehentasuna. “Ordutegiak gizonen artean

banatzen ziren. Soberan geratzen zena, emakumeentzako izaten zen”. Kirola egiteko gunea sartzeko ilaran jarri behar. “Bere moduluan sartu ez ziren gizonak baldin bazeuden, gelditzen zaituzte inguratuta, gizonak pasa arte”, oroitzen du.

Laguntza, “beste zerbaiten truke”

Egoera gogorragoak ikustea ere tokatu zaio. “Mecon nengoen, zerbaitzuri buru bat epaitu zuten, emakumeek zerbait behar zutenean sexua baliatzea-

gatik. Izugarria da”, oroitzen du. Espetxean sartzera “Pack” moduko bat jasotzen zuten, maindire eta mantekin. Hotza izan eta beste manta behar izanez gero eskatu behar izaten zuten. Manta gizonezko presoaren eskutik jasotzen zuten. Baina ez zen doan izaten etorkinen kasuan, “beste zerbaiten truke” baizik.

Espetxe barruko organigrama oso matxista dela dio Marisak. Bizi garen sistema patriarkal hau askoz bortitzagoa da espetxe barruan. Fun-

Olatz Altuna: “Emakume presoek ez zaie bere lekua eman”

Emakumezko presoena, oraindik oso ezkutuan dagoen errealitatea dela azpimarratu dio NOAUA!ri Olatz Altunak: “Presoa aipatzen denean, gizonzko preso datorkigu burura. Emakume presoek ez zaie bere lekua eman. Ez da hitz egin horri buruz. Arantzaren egoera dela eta, gaia hortxe dago eta erantzun behar zaio, batez ere emakumeen lekukotasunei tartea emanez”.

18/98 auziagatik, 3 aste izan zuten preso lehenbizi Soto del Realen eta zazpi hilabete bete arte, Valentziako Picassenten gero 2007-08 urte artean. Lehen pertsona ezagutu du zer den emakume izatea espetxe barruan. “Espetxean gizartean gailentzen den eredu erreproduzitzen da, muturrera eramanda. Gizonen ikuspegitik pentsatua eta diseinatua dago. Emakumeek kanpoan sufritzen dugun rol banaketa hori muturrera eramaten da. Errepresio bikoitz edo amen kasuan hirukoitz hori dago”, adierazi digu Olatzek.

Esaterako, gizonzkoekin egiten ez zuten moduan, astero modula garbitzea exijitzen zituzten preso emakumeek.

“Larunbateroko borroka hori zen, ez garbitzea. Funtzionarioaren arabera liskar gogorra izaten zen. Horren ondorioa, zigorra zen, isolamendua”, Altunak oroitzen duenez.

Liskarrak aipatuta. Haien kasuan, funtzionarioak emakumezkoak izaten ziren, baina gatazkaren bat zenean, aldaketa esanguratsu bat gertatzen zen. “Neure moduluan funtzionario gizonzkoak ikusten nituen liskarren bat zegoenean, zerbait konpontzera etorriko balira bezala zen. Emakume funtzionarioak deitzen dio oraindik indar gehiago duen gizonzkoari. Hori esanguratsua da”, azpimarratzen du Altunak.

“Errepresio plus bat da”

Hor dago baita preso emakumeek sufritzen duten bakardadea, sarritan gizonzkoena baino latzagoa. Pentsa, patio ordu gutxi izaten zituen Olatzek, 19 ordu igarotzen zituen ziega barruan. Bera zen bere moduluan zegoen euskal preso bakarra. Olatz zegoen espetxean emakumeen modula eta amena bereziak zeuden. Bizi zuen bakardadearen aurrean, hurbilekoen bisita izugarriko arnagunea zen bera-

rentzat. Asteburuko bisitetan hain zuzen ere islatzen zen, zer zen preso emakumea izatea. “Gizonzko presoak ikusten nituen kabinetan. Ama edo bikotea etortzen zituzten bisitetan. Emakumeon artean aldiz, bisitak nik eta oso emakume gutxi izaten genituen”.

Ikasteko tartea hartzen zuen. Izena eman zuen katalana ikasteko ikastaroan, beste arrazoiaren artean, preso euskaldunekin elkartzeko aukera izateko. “Funtzionarioek ordea oso ondo kontrolatzen zuten, euskaldunok ez elkartzea”. Funtzionario gizonzkoekin joan behar izaten zuen klaseotara. “Beste errepresio plus bat da, inguratua zoaz”, Olatzek oroitzen duenez. Gogoan du, nola preso batek polizien aurrean erditu behar izan zuen.

Azpiegitura kaxkarragoak

Geroago, espetxetik irten ostean, berarekin batera espetxe berean egokitu ziren euskal presoekin hitz egiten jabetu zen, “guk genituen azpiegiturak kaxkarrak zirela, mutilenekin ez zutela zer ikusirik”. Zenbait adibide segidan. Amentzako aparte zegoen modula ez zegoen haurren beharretara egokitua. Burua arintzeko kirola



Olatz Altuna.

egin nahi bazuen, “gimnasio xixtrin bat” baino ez zuten. Hori gutxi ez eta, aisialdiko tarterako “eskaintzen zutena ordea, kuxinak, estutxeak edo puntua egiteko materiala izaten zen. Oso rol femenino horretara bideratua erabat. Gizonzkoek beste aukera batzuk zituzten”, oroitzen da.

Argi du Olatzek gainkarga ikaragarria duela emakume eta ama izateak espetxe barruan. “Gizonzkoek aplikatzen ez zaien plusa”, bere esanetan. Bere lekukotza hunkigarri bezain gogorra 400 preso eta erbesteratuen lanekin osaturiko “Ametsen liburuan” irakur dezakezue.

“espetxeak gizonentzat diseinatuak daude”

tzionarioen artean ere errepikatzen dira rol berak. Hau da, “funtzionario emakumeak ez dago ikusia gizonzko bat bezala. Puntuak irabazteko gizonzkoena baino askoz gogorragoa izan behar du”.

Eta hau guztia gutxi ez eta, horri guztiari “jaso dugun heziketa” erantsi behar. “Kalean zutabeak gara, gure zahar eta umeetaz arduratzen gara. Laguntza ematera, zaintzaile izatera ohituak gaude. Bat batean espetxe barruan aurkitzen zara ez zarela emakume hori.

Alderantziz, beste batzuk egin behar dituztela lanok. Askoz gogorragoa da”, azpimarratzen du Marisak.

“Pertsona bat suntsitzea da”

Are gogorragoa, sufritu behar den bakardadea ikusita. Gizonzko baino euskal preso emakume askoz gutxiago izanik, elkartuago egoteko aukera egon zitekeen, baina ez. “Dispertsioa dela eta, sakabanatuak daude”. Haietako bat, Arantza Zulueta, muturreko egoeran da egun. Marisak argi dio,

abokatuaren kasuan, batetik dispertsioaren eragina dago, eta bestetik “espetxe bakoitzeko erregimena nola aplikatzen den. Arantzarena muturreko egoera da, izugarria. Pertsona bat suntsitzea da. Espetxea errehabilitatzeko dela diote. Barrutik ikusita justu kontrakoa da”.

Emakume presoena azalartzeke dagoen errealitatea dela dio Marisak. Baina badira gehiago ere, esaterako espetxe barruko preso transexualena, “han barrukoa izugarria da”.



Marisa Alejandro.

Zubieta
Lantzen

Zubieta Lantzen

Duela gutxi erantzun dugu gure herrian inoiz inork inori Gipuzkoan egin ez dion galderra: erraustegia egitea nahi al duzu? Zubietarrok argi esan dugu: EZ. Zubietarron %64,7k Erraustegia Erabakiak antolatutako galdeketa parte hartu du, eta horietatik %99,6k ezezko erantzuna baieztatu du.

Urte hauetan guztietan gure iritzia beste hainbat modutan adierazi izan dugun arren, orain altu eta ozen esan dezakegu gure herriak ez duela Gipuzkoan erraustegirik egitea nahi. Ez dugu nahi, ez; ez gure herrian ezta beste inorenean ere; guretzat nahi ez duguna ez baitiogu beste inori opa.

Garbia da zubietarrok gipuzkoarrei eta denon arduradun politikoei egiten diegun eskaera: erraustegiaren lizitazio prozesua gelditu eta hondakinen arazoari aurre egiteko guztion artean inori kalterik egingo ez dion sistema bat ados dezagula, erraustegirik gabekoa alegia. Izan ere, erraustegia eraikiz gero, gipuzkoarrei eragingo digun kaltea nabarmena da: osasunean, ekonomian, ingurumenean... Gu ez gara adituak, baina egunero bate-tik eta bestetik entzuten ari garen datuek ikara sortzen digute. Benetan gipuzkoarrok



Larunbaterako deitua izan den manifestaziora joateko deiarekin bat dator Zubieta Lantzen: "azaroaren 26an Donostiako kaleak betetzeko deia egiten dizuegu GURASOsek antolatutako manifestazioan parte hartuz". Argazkia joan den igandeko Txerri Festan egina dago. Egilea: Lurdes Hueta.

ZUBIETA LANTZEN

"Benetan gipuzkoarrok prest al gaude erraustegiak ekarriko digun zorpetze ekonomikoari aurre egiteko? Badakigu erraustegia ordaintzeko zein zerbitzu publiko galduko ditugun?"

prest al gaude erraustegiak ekarriko digun zorpetze ekonomikoari aurre egiteko? Badakigu erraustegia ordaintzeko zein zerbitzu publiko galduko ditugun?

Gure ustez, Gipuzkoako herritarrok ez gaude behar bezala informatuak erraus-

tegiak ekarriko dizkigun ondorioez, eta agintariek dute horren errua. Gai hau ez dute guztion artean eztabaidatzerik nahi izan eta tematurik daude erraustegia eraikitzearekin. Horren adierazle garbia da zubietarrok ez garela aintzat hartuak izan ez Donostiako Udalean, ezta Gipuzkoako Foru Aldundian ere. Lotsagarria iruditzen zaigu gure udaletako batek bere herritarrei erantzunak emateko adorerik ez izatea, Donostiako Udalak ez baitio erantzun gure bilera eskaerari. Zubietarron hitza errespetatua izateko bermea eskatu nahi genion, bere herritarren nahiak babesteko alegia, besterik ez. Gipuzkoako Ahaldu Nagusiak ere jarrera bera izan du gure

aurrean, gure txikitasunak eskariari garrantzia kentzen diola dirudi.

Hala eta guztiz ere, ziur gaude gipuzkoarrok gure jarrerara ulertzen duzuela guk zuen elkartasunean sinesten dugun moduan. Ziur gaude zuek ere ez duzuela nahiko besteentzat zuentzat nahi ez duzuen hori. Horregatik, azaroaren 26an Donostiako kaleak betetzeko deia egiten dizuegu GURASOsek antolatutako manifestazioan parte hartuz. Guztion artean hondakinen afera konponduko duen irtenbide bat ados dezakegu eta demokrazian horixe da egin beharrekoa, inposaketarik gabeko irtenbidea aurkitzea alegia.

Zuen publizitatea hemen

943 360 321
publizitatea@noaia.eus



Kima

MASAJE LEKUA

· KIROL MASAJEA · MASAJE TERAPEUTIKOA
· KOLONAREN HIDROTERAPIA



Nagusia 44, behea LASARTE-ORIA 943 36 61 97

berria denda

Osatu Gabonetako saskia Euskal Herriko produktuekin

SOLAGÜEN ARDOAK

SOLAGÜEN

LABASTIDA 1786
2011

65 € 6 botilako kutxa



2014. urteko ardo ONDUA

74 € 12 botilako kutxa



URDETXE

BASATXERRI BESO ONDUA
(PALETA)

6 kilo inguruko beso ondua, aske hazitako txerriarekin egina, 20 hilabeteko ontze denboratik gorakoa.

65 € Paleta



2017 AGENDA Eguneko ikuspegia

13 €



bl 11 €

17x23,7 cm

BRUT NATURE MAINEGRA

MENDABIAKO CAVA

MAHATS MOTAK:
%50 viura, %35 parellada,
%15 chardonnay.

LIGETAN ONDUA:
Hogei hilabete baino gehiago.

ALKOHOL GRADUAK:
Bolumenaren %12, gutxi gorabehera.



42 € 6 botilako kutxa

URDETXE
PATE SORTA

Euskal pateaa Ezpeletako piperrekin

Txakolidun pateaa

Arabar boilurdun pateaa

Sagardo pattardun pateaa



15 € pate sorta

2009. urteko ERRESERBAko ardoa

50 € 3 botilako kutxa



92 € 6 botilako kutxa



MAHALA SORTA

Mahala

34 € Saskia

Mahala urdai azpikoa, 250g
Mahala paleta, 250g
Txoriko lehorra, 300g
Behi gazta, 550g
Sagar dultzea, 300g
Mahala solomoa, 250g



ALFAR OLIOA

La Maja

Oliba olio
birjina estra

75cl. %100 arbekina

41 € 6 botilako kutxa



EUSKARA IRABAZTEKO BIDEAN

ALEKA bilduma



Egilea:
Garikoitz Goikoetxea

16,50 €

bl 14,50 €

Eskariak egiteko, jarri gurekin harremanetan
abenduaren 2a baino lehen.
Abenduaren erdialdean banatuko dira.

Osatu zure saskia!

Bidalketa
gastuak
DOAN

(0034) 943-30 43 45 • berria.eus/berrialaguna/denda/

Txokoalde, berriztatzen



Umeentzako jolas parke berria eraiki da eta aparkalekuan eserlekuak ipini dituzte. Horretaz gain, Erroizpeko bidea asfaltatu egin da eta Txokoaldeko zubian euri-urak bideratzeko obrak egin dira. Kaleetan pintaketa lanak eta ezinduentzako plaza berri bat egin dute. Argazkiak: Usurbilgo Udala.

Hainbat asteren ondoren, Txokoaldeko toki ezberdinetan hasitako obrak bukatuko dira datozen egunetan. Hala ohartarazi digute Udaletxeko komunikazio sailetik.

“Bertako herritarrekin hainbat neurri adostu ondoren, umeentzako jolas parke berria eraiki da. Horrez gain, kaleetan zein aparkalekuan pintaketa lanak egin eta ezinduentzako plaza berri bat sortu da”.

Horiek izan dira hartu diren neurrietako baztut. Ez bakarrik. “Txokoaldeko zubian, berriz, euri-urak bideratzeko obrak egin dira. Bukatzeko, aurrez aipatutako aparkalekuan eserlekuak jarri

dira, eta Erroizpeko bidea asfaltatu egin da”.

45.000 euroko partida

Usurbilgo Udalak 45.000 euroko diru-partida bideratu du zeregin hauetara.

Euskararen Egunari lotuta lehiaketa bat jarri dute martxan: “Euskarari zein esaldi eskainiko zenioke?”

Abenduaren 3an, Euskararen Eguna eta Ez Dok Amairuren 50. urtemugarekin bat eginez, “herriko artixten taldea jaialdi bat antolatzekotan gara. Jaialdia arratsaldeko 18:00etan hasiko da Mikel Laboa plazan (euria eginez gero Askatasuna plazan izango zen)”. Herritarren parte hartzea bultzatzeko, lehiaketa bat jarri dute martxan. *Euskarari zein esaldi eskainiko zenioke?* izango da galdera eta “postontziak jarriko ditugu Aek-n, liburutegian, Agerialden, Udarregin eta Kiroldegian, eta bertan utzi beharko da esaldia izen-abizenak dituela”.

Emailaz ere partehartu ahal izango da, artixtak@gmail.com.



Euskararen Eguna asteburuan egokitu denez, Udarregi nahiz Aginagako ikasleek abenduaren 5ean ospatuko dute: 12:00etan Mikel Laboa plazan. Argazkia, artxibokoa.

com helbidera idatziz. Azken eguna abenduaren 1a izango da “eta irabazlearen izena abenduaren 3ko jaialdian emango dugu”.

Ekitaldian musika, antzer-

kia, olerkiak, dantza, ikus-entzuneakoak... osatuko dute.

Euskararen Eguna

Abenduaren 3an kultur jaialdi batekin ospatuko da Euskara-

ren Eguna. Bi egun beranduego, ikasleen txanda izango da:

Abenduak 3, larunbata

Mikel Laboa plazan

■ 18:00 Euskararen Eguna eta Ez Dok Amairuren 50. urteurrena ospatzeko kultur jaialdia Mikel Laboa plazan. Musika, dantza, ikus-entzunezkoak, olerkiak, antzerkia, kantua... Antolazaileak: herriko artixtak.

Abenduak 5, astelehena

Mikel Laboa plazan

■ 12:00 Udarregi Ikastolako eta Aginagako Herri Ikastetxeo ikasleen kantaldia Mikel Laboa plazan. Imanol Urbieta omenduko dute.

Larunbatean, Gazte Eguna

Ekimenez beteriko aste-burua datorkigu berriz. Tartean, frontoia izango da hitzordu batzuen bilgunea; bai behintzat Gazte eta Erle egunena. "Horregatik dei egin nahi diegu, Gazte Egunaren antolatzaileon izenean, Gazte Egunean parte hartu eta gozatzeko asmoa duen orori, Erle Eguneko prestaketa eta muntaketa lanak errespetatu eta babes ditzaten. Demako postuen egiturak, zintzilaturiko erleak... Ostiralean utzi bezala egon behar dira igande goizean. Zure laguntza eta begirunea eskatzen dugu, elkarbizitza bermatzeko, gure hitza betetzeko", ohartarazi dute Gazte Eguneko antolatzaileek.

Erle Egunekoekin adostu dute frontoiaren erabilera. "Jakina da astebururo astebururo dimensio eta izaera ezberdinetako ekimenak antolatzen ditugula hemen, Usurbilen. Eta noski, garai hauetan eguraldia bide-lagun arriskutsua denez, frontoia bihurtzen da jai giroaren aterpe eta topagune. Ondorioz, erreferentziazko gune hau erabiltzerako orduan zenbait ika-mika ere sortu izan dira. Gauzak horrela, ez da salbuespena izan azaroaren 26-27ko asteburua, non Usurbilgo Gazte Egunak eta Erle Egunak bat egingo duten. Hortaz, bi jai egun hauen antolatzaileok, elkarrekin akordio batera heldu eta bi egitarauak frontoian garatzea adostu dugu, elkarrekiko errespetua giltzarri moduan ipiniz", adierazi dute.



Aurreko astean, herriko gazte eragileen inguruan eginiko diagnostia aurkeztu zuen Usurbilgo Ernaik Potxoenean. Gazteraikei topaketaz ere aritu ziren.

GAZTE EGUNEKO ANTOLATZAILEAK

Gazte Egunean parte hartu asmoa dutenei, "Erle Eguneko prestaketa eta muntaketa lanak errespetatu eta babes ditzaten eskatzen diegu. Postuen egiturak, zintzilaturiko erleak..."

Aurtengoa, bigarrena

Herriko gazteen arteko harremanak sendotu eta gazte mugimendua berreraikitzeke hasi ziren antolatzen iaz Gazte Eguna. Bigarren edizioa ospatuko da larunbat honetan:

Azaroak 26, larunbata

- 08:30 Auzolanerako deialdia muntaketarako.
- 10:00 Mahai ingurua: "Gazte perspektiba: Usurbilgo errealitatea ezagutzen".
- 11:30 Gazte Olinpiadak. Oharra: frontoian elkartuko gara. Izena eman betiko tabernetan.

- 19:00 Elektro Txufla, elektrotzaranga.
- 21:00 Afaria. Sarrerak 12 eurotan, betiko tabernetan salgai.
- 00:00 Kontzertuak: Odolaren Mintzoa, Skasti, DJ Seymar & XBR.

Abenduaren 9tik 11ra Gazteraikei topaketak

Usurbilgo gazte eragileen inguruan eginiko diagnostia aurkeztu zuen Usurbilgo Ernaik azaroaren 18an Potxoenean. Datorren astekarian azterlan honen nondik norakoen berri emango dizuegu. Abenduaren 9tik 11ra Barañainen (Nafarroa) egingo diren Gazteraikei alternatibak eraikitzeke topaketen berri ere eman zuten saio berean. Gogoan izan, azaroaren 30era arte 25 eurotan eskura daitezkeela bonoak Irratin. Eta gero, gaztekeraitzen topatu. eus atarian izena eman beharra dagoela. Web orri berean jaso daiteke, topaketen inguruko behar beste argibideren berri.

Usurbilgo Gure Esku Dagoren bilera

2017ko maiatzean erabakitze eskubidearen inguruko galdeketa antolatzeko asmoa du Usurbilgo Gure Esku Dago taldeak. Horretarako bilera deitu dute. Larunbat honetan 12:00etan Potxoenean.

Dantza eta showa, Aginagako ludotekan

Urte bukaera hau baliatu ohi dute ekitaldi sorta ederra antolatzeko. Mugimendua izango da asteotan Aginagan deitu dituzten ekimenak tarteko. Hasteko bi hitzorduak:

Abenduak 2, ostirala

- 18:30 MartxanGo Dantza Aginagako ludotekan. Estilo ezberdinetako abestiekin dantza egiteko aukera.
- 22:00 "Irri par tsou" Aginagako ludotekan. Umorezko ikuskizuna.
- Antolatzaileak: Antxomolantxa Elkarteak, Aginagako Eskola Txikiko Guraso Elkarteak.

Abenduaren 16an, barrikotea Andazpen

Andazpe Elkarteak urtero bezala barrikotea antolatu du. Datorren abenduaren 16an 20:30etan izango da 25 euroren truke. Menua honako hau izango da: bakailaoa saltsan eta tomatearekin, saiheskia, postrea, kafea eta kopa.

Izena emateko epea abenduaren 11n amaituko da.

txirriStra
TABERNA

-Plater konbinatuak
-Ogitartekoak
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

Otar-Goxo
Elkagaiak

Zubiaurrenea, nº2
☎ 943 36 55 81
20170 Usurbil

ALDAMU

KONPONKETAK

KALE NAQUSIA 10- atzekoaldea
943 372 795

Zuek erabaki Inauteri Festarako gaia



Zuen ekarpenak elkarkea@noaua.eus helbidera bidali edo laster tabernetan jarriko ditugun zerrendetan ipini.

U surbilen otsailaren 25ean ospatuko dugun Inauteri Festa urrun dagoela irudituko zaigu, baina prestaketa lanak abiatu beharrean gaude jada. Hasteko, zertaz mozorratu nahi zenukete? Aurten ere zuen proposamenduetatik hautatuko dugu gaia.

Zuen ekarpenak elkarkea@noaua.eus helbidera helarazi ditzakezue. Edo bestela, egunotan tabernetan jarriko ditugun zerrendetan apuntatu. Ekarpenean egiteko epea zabalik izango da abenduaren 16ra

arte. Astebete beranduago, abenduaren 23an argitaratuko dugun urteko azken NOAUA!n jakinaraziko dizuegu zein den hautaturiko gaia. Animatu eta parte hartu!

Aurreko edizioetan...

Dagoeneko lehen ekarpena heldu zaigu. Gaztelekutik; "tribu urbanoak" gaia proposatu digute, "guk punkiz mozorrotu nahi dugulako!" adierazi digute. Lanak errazte aldera, honatx azken hamarkada pasatxoan aukeratu izan diren gaiak, da-

torrean errepika ez daitezten: 2017: ???

2016: Lanbideak.

2015: Ipuinak.

2014: Erdi Aroa.

2013: Musika.

2012: Mitologia.

2011: Itsasoa.

2010: Zirkoa.

2009: Olinpiar Jokoak.

2008: Xomorroak.

2007: Brasil.

2006: Marrazki bizidunak.

2005: Usurbil, Oesteko herri.

2004: Hollywood.

2003: Munduko kulturak.

2002: Extralurtarrak.

Gabonetako Parkerako begiraleak behar dira

Gunea kudeatuko duen enpresak, Aupa Kultur Lanak-ek, Gabonetako Parkerako begiraleak behar ditu. Abenduaren 26tik 28ra egongo da martxan. NOAUA!ri aditzera eman diotenez, begiraleek aisialdiko begirale titulu eta EGA izan behar dute. Interesdunek kurrikulumak, aupa@aupakl.com helbidera bidali behar dituzte.



Abenduaren 26tik 28ra egingo da Gabonetako Parkea Oiardon.

Odol Emaileen Eguna

Herriko odol emaileek abenduaren 8an ospatuko dute haien eguna. Atxega Jauregian egingo duten bazkari baten bueltan izango da. Otordurako izena aurrez eman beharko da, telefono zenbakiotako batera deituta:

■ Maite: 943 366 040

■ Mari Sol: 943 372 487

■ Agustina: 943 363 102

Usurbil F.T.-ren 40. urtemugan, onena emateko prest



Berezia izaten ari da Usurbil Futbol Taldeak hasi berri duen denboraldia, 40 urte bete baitituzte.

Urtemugaren harira hainbat ekimen berezi antolatu dituzte, garai honetan egin ohi dituzten gainerako hitzorduez ahaztu gabe ordea. Horien artean da hain zuzen, azaroaren 20an egin

zutena. 2016-17 denboraldirako osatu dituzten futbol taldeak aurkeztu zituen Usurbil F.T.-k, haurrentzako jolas eta luntx artean.

Futbol jokalaria, entrenatzaiz-

le eta zuzendaritzako kideak, erronkez beteriko denboraldi honetan ere duten onena emateko prest dira. Usurbilgo futbol zaletasuna ordezkatzen ariko dira hurrengo hilabeteotan,

Futbol Eskola, infantil mailako bi neska taldeak, edota alebin, kadete, jubenil eta erregional mailako mutil taldeak. Talde guztion irudiak datorren aste-karian bilduko ditugu.

Hemen da, mendizaleen astea

Iritsi da Mendi Astea. Andatza Mendi Elkarteko kideek beste bi deialdi ere egin dituzte. Batzarkide berriak behar dituztela, eta abenduaren 11n Artikutzara joango direla.

Mendi Astea

Azaroak 23, asteazkena

■ 19:30 Mendi Astea: “Andatzakoak Ordesako Monte Perdido” proiektzioa Sutegiko auditorioan.

Azaroak 25, ostirala

■ 19:30 Mendi Astea: “Autobesa mendi jardueretan” hitzaldia Sutegiko auditorioan.

■ Hizlaria: Mikel Nogues, Segurtasun eta Larrialdi Kudeaketan Graduatua. DYAKo Erreskate Arduraduna. Sarrera: doan.

Azaroak 26, larunbata:

Mendi Astearen amaiera

■ 08:00 Irteera Usurbilgo inguruetara frontoi atzetik.

■ Ondoren, bazkaria Patri jatetxean. Izen ematea, Sutegin antolatutako diren ekitaldietan antolatzaileek jarriko duten mahaian. 2017ko federatu txartelak



Azaroaren 26an larunbata, Usurbilgo inguruetara irteera. Ondoren bazkaria egingo dute Patri jatetxean. Izen ematea, Sutegin antolatutako diren ekitaldietan antolatzaileek jarriko duten mahaian.

berritzeko aukera baita bertan.

Informazio gehiago:

Informazioa: andatza.com
Antolatzailea: Andatza M.K.T.

Batzarkide faltan

Andatza Mendi Elkarteko batzarra zortzi partaidek osatzen dute. “Gaur egun hiru toki

hutsik daude eta partaidetza handitzea behar dugu. Egiten ditugun ekintzak eta mendi irteerak antolatzen parte hartu nahi baduzu, jarri harremanetan gurekin andatza@hotmail.com helbidera mezua bidaliz edo ostegunetan arratsaldeko 19:00etan Andatza Mendi Elkarteko egoitzara agertuz”.

Abenduaren 11n,

Artikutzara

Artikutzako trenbide zaharra ezagutzera abiatuko dira. Goiz pasako ibilaldia izango da. Irteera Oiardo Udal kiroldegitik izango da, goizeko 8:00etan. Izena emateko azkeneko eguna: abenduak 5.

Andoni Iraolak fubola utzi du

16 denboraldietan zehar maila professionalean jokatu ostean, futbola utzi du Andoni Iraolak.

Azken urte eta erdia New York City taldean eman du. Aurretik beste 12 urtez aritu da Athleticen lehiatzen. 500 partida baino gehiago jokatu zituen talde zuri gorriarekin.



Santxo-Gorrotxategi nagusitu ziren Gipuzkoako Ohorezko Mailako Txapelketan

Aurreko astean aipatu genuenez, Santxo-Gorrotxategi bikotea nagusitu da Gipuzkoako Ohorezko Mailan. 22-6 irabazi zuten finala, Ojuel-Arrietaren aurka.

Ostiral honetan, Kadete mailako partidak

Azaroaren 25ean ostirala, 20:00tan hasita, hiru partida Usurbilen. Kadete mailan, eskuz banaka:

1. Zumeta-Oiarpe
2. Galarraga-Ilunpe
3. Albeniz-Lapke



22-6 emaitzarekin irabazi zuten Ojuel-Arrieta bikotearen aurka.

Eskubaloia, euskal selekzioa

Azaroak 27, igandea

■ 15:30 Emakumezko jubenilen selekzioaren entrenamendua, Barakaldoko Lasarre Kiroldegian. Usurbil K.E.-ko Anne Irazabal Esnaola eta Estitxu Berasategi Eizagirre deitu dituzte hitzordura.

■ 15:30 Gizonezko kadeteen selekzioaren entrenamendua, Getxoko Fadura Kiroldegian. Usurbil K.E.-ko Julen Nazabal Aisa deitu dute hitzordura.

■ 17:30 Gizonezko infantilen selekzioaren entrenamendua, Getxoko Fadura Kiroldegian. Usurbil K.E.-ko kide Eneko Furundarena Maiz deitu dute hitzordura.

ETXEBIZITZA

Salgai

Usurbilgo udalak etxebizitza bat jartzeko enkantean. Gutxieneko lizitazioa: 106.323 euro. Informazio gehiagorako: 94 337 19 51 edo kontratazioa@usurbil.eus

Kalezar aztoa, 3 gela handi, sukalde handia, sarrera zabala, komun bat. Eguzkitsua, epela. Gela guztiak kanpoaldera, leihoarekin. Fatxada berritua, teilatua egoera onean. Garajea, bi trasteleku. 135 m². 637 22 88 60

Pisua salgai, Puntapax 4 behean. 43 metro². Sukaldea, komuna, 3 gela. Gela guztiak leihoekin. Aparkaleku pribatuarekin. 120.000 euro. 637 902 096

Duplexa Kalezarren - Aizparrenea etxea, 176 m² (120 eta 56) eta garajea 50m² eta terraza 9m². Igogailua, fatxada berritua. Oso argitsua, bista onak. 679002101

Pisu bat salgai. 90 m². 3 logela handiak, 2 bainugelak, jan-egongela, sukaldea, jantokia aparte eta trasteleku. Dena kanpoaldera. 605 707 642.

78m² pisua Atxegalden. 4 logela, 2 komun, sukaldea, egongela, balkoi luzea, trasteroa. Igogailua. Eguzkitsua. 215.000 euro. 656742207

BOE-ko 79m² etxebizitza Aginagan salgai. 3 logela, 2 komun, saloia, sukaldea... Dena kanpoaldera, balkoi-terrazarekin, eguzkitsua, garaje itxia, trasteleku. 629631838

2 gela, komuna, sukaldea eta sala dituen etxe bat erosiko nuke. Gehienez 90.000 euro. 689 58 39 21.

Bi gelako etxebizitza salgai. Komuna, hall, sukaldea. Eguzkitsua. 3. pisua igogailuarekin Muna Lurra kalean. 175.000 euro (620826891).

Etxe txiki eta merke bat erosi nahi nuke. Edo alokairu baxuko bat hartuko nuke. 615 758 476.

Pisu bat salgai Munalurran. Erreformatu berria. 690 15 36 31 (Ane)

Pisua salgai Urdaiagan. Trenbide-pasagunearen ondoan.

OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA

Orri honetan agertzen diren oharra doakoak dira. Telefonoz edo emailaz helarazi daitezke: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

Oharra bidaltzeko azken eguna: astelehena, eguerdiko 12:00ak. Atal bakoitzaren goialdean ipiniko ditugu berrienak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOUA!k ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

56m². Pisu baxua. Berritua. Sukalde irekia, esekilekua, egongela, 2 logela eta komuna. Komuna salbu gela guztiak ditu kanpora. 90.000 euro. 646344847

Santuenean pisu bat salgai. Erreformatzeko, prezio onean, aukera ezin hobea.lñaki (665736896)

Etxe bat salgai Munalurran. Dena kanpo aldera. 3 gela, sukaldea egongelarekin, komun bat, eta terraza bat armairu batekin eta dena itxita. Tel. 637 225 620.

Alokairuan

Alokatutako etxe baten bila nabil. 550 euro gehienez, bi geletakoa, Kaxkoan ahal bada. Txakurra daukagu. 665 319 105.

Pisu bat 3 logelekin, sukaldea, egongela, 2 komun, Atxegalden, igogailua eta terraza. 637309209

Logela alokairuan Aginagan, pertsona arduratsu batentzat. Tel. 672 448 644.

Alokairuko pisu baten bila nabil. Txakur bat dut. Erroldatua. 661 115 222

Alokairuko pisu txiki baten bila nabil. Presa dauka. 699 680 265.

3 logela dituen alokairuko pisu baten bila nabil, baina epe motz batean (urte 1) erosteko aukerarekin. Tel. 686 554 145. Ana.

Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen, 3 logelekin posible bada. 648 220 432.

Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen. Tel. 603 336 046.

Pisu baten bila nabil, altzariekin eta gehienez 550 euro. 661 378 340.

Alokairuko pisu baten bila nabil. Tel:

620 708 265 / 686 143 7866.

Gela bat alokatzen dut Usurbilen. Emakume edo neska arduratsua izan behar du. Tel. 665 319 105.

Logela bat alokatzen dut. Pertsona 1 edo 2rentzat. Prezio ona. 657 535 299.

Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen, nominarekin. 664885737.

MOTORRA

Salmenta,

garajeak

Garaje marra bat salgai Munalurran. Tel. 646 663 405

Vespa 125 T5 motoa salgai. Kotxe-ko karnetarekin gidatu daitezke. 1990ekoa. Egoera oso onean. 1.200 euro, negoziagarriak. 646329441.

Daelin Message motorra salgai, 49 zilindr. 6.400 km, 15 urte inguru. Istripurik gabe. 450 euro, negoziagarriak. Tel. 637 760 816.

Garaje marra bat salgai Munalurran. Tel. 646 663 405.

Galtzaraginako garaje marra salgai. 20.000 euro. 687348223

Garaje itxia salgai, 38 m karra-tukoa, Txaramunto, 12. Usurbilen. Mikel 665677195

Garaje itxia salgai, 38 m², Txaramunto kalea 12. Mikel: 665677195

Suzuki Vitara salgai. Dieselak. 1998. urtekoa. Korrea aldatu berria. 630 490 844.

Garaje itxia alokatzen dut, 20 metro², Kale Nagusia 22aⁿ. 618860270.

Garaje bat saltzen dut Erdiko-kalea, 10 zenbakian. 2 kotxerentzat. 48.000 euro. 699 720 940

Marradun garaje plaza bat alokatzen dut Bizkarre auzoan. Hilean 70 euro. 696 014 585.

Garaje itxia salgai, 38 m koadro, Kalea Txaramunto, 12. Usurbilen. 665677195

Hiru lokal, komertzio edo garaje moduan salgai Santuenean. 16, 18 eta 42 metro koadrokoak. Argitsua. 671 547 567.

Garaje itxi bat salgai 36,30 metro koadro. 2 kotxerentzat edo garaje-trastero moduan. Erreka-txiki-Puntapaxetik. 653380557.

Oso argitsua den 70 metro karratuko lokal komertziala salgai Santuenea auzoan. 671547567

Lokal komertzial bat salgai, 60 metro karratu. Erdigunear. Tel. 679 732 489.

Bi garaje saltzen dira. Batera edo binaka. 21 eta 25 metro koadokoak Santuenea 17. 615149900.

LANPOSTUAK

Lan eskaintzak

Pertsona euskaldun bat, arduratsua behar da pertsona helduak zaintzeko. Malgutasuna. Tel. 607 233 255.

Aseguru sektorean espezializatua den gestore personal baten bila gabiltza. Heziketa aseguru-etxearen esku eta libre egotea eskatzen da. Diru-sarrera etuak. jm.fandino@catalanaocidente.com. 699 760 873.

LANPOSTUAK

Lan eskaerak

Etxeo zerbitzuan, helduak edo umeak zaintzeko eskaintzen naiz. Usurbilgoa naiz eta erreferentziak ditut. 658703636 Lupe

Auxiliar laguntzaile tituluduna, helduak zaintzeko eta etxeo zerbitzurako prest, baita garbiketa lanak egiteko ere. 622925562

Lan bila nabil, garbiketan, jabetxe batean harraskan aritzeko edo pertsona helduak zaintzen. Papera egunean. Tel. 667 983 617.

Mutil gazte euskalduna DBHko ikasleei klase partikularrik emateko eskaintzen da. Ingeniaritza kimikoan graduatua, ingeles maila altua. 695 726 499. Jon

Lan bila nabil, orduka edo umeak zaintzen. 645 530 490.

Lan bila nabil, interna moduan edo orduka. 631 108 012.

Berandu baino lehen ekin! Irati eta Ane bakarkako partikularrik, arreta hizkuntzen sakontzea eta beste zenbait lanketa eskaintzen ditugu. Pedagogia eta beste hainbat ikasketa. Deitu edo bidali mezua: 617 684 523 / 680 160 278.

Emakume euskalduna eskaintzen da, astean bi edo hiru egunetan garbiketa lanak egiteko, goizez edo arratsaldean, irailetik aurrera. Oso arduratsua. 671 547 567

18 urteko nerabea eskaintzen da uda garaian baratza lanak egiteko. Tel. 616 260 451.

Lan bila nabil. Pertsona helduak edo umeak zaintzen. Interna bezala, orduka edo ospitalean egoteko. Tel. 676 188 411.

Neska arduratsua lan bila dabil pertsona helduak zaintzen, interna moduan ere bai. 618 756 934

Neska arduratsua lan bila dabil pertsona helduak zaintzen, interna moduan ere bai. 631 224 621

Lan bila nabil. Pertsona helduak edo umeak zaintzen, edo garbiketa lanetan. 642 704 992.

Lan bila nabil, umeak edo helduak zaintzen eta garbiketa lanetan. Paperekin eta esperientziarekin. Tel. 617 888 854.

Etxeak eta bulegoak garbitzeko, eta pertsona helduak zaintzeko eskaintzen naiz. Asteburuetan eta ospitalean gauak pasatzeko ere bai. Tel. 606 661 048.

Etxeak, bulegoak eta portalak garbitzeko edo pertsona helduak zaintzeko eskaintzen naiz. Tel. 673 256 566.

Neska arduratsua bat eskaintzen da garbiketa lanak egiteko. Libre edozein momentutan hasteko moduan. 629 110 310.

Etkez etxe txakurrei ilea mozteko eskaintzen naiz, material guz-



Zorionak Urko!
Muxu pila bat!!
Maite zaitugu!!



Zorionak Alazne eta Nikolas!
Azaroaren 11n 17 urte bete zenituelako eta azaroaren 23an 94 urte beteko dituzulako. Zorionak familia guztiaren partez!



Zorionak Peru!
Ondo ondo pasa zure laugarren urtebetetzean, Eñaut eta etxekoekin partez



Zorionak Oihan,
azkenean iritsi da hainbeste nahi zenuen eguna. 7 kandela jarriko ditugu oraingoan.
Muxu pila bat!!





Zorionak Elur!
12 muxu potolo etxekoekin partez. Zure urtebetetze eguna!
Muxu bat!!




Zorionak Katixa!
5 urte beteko dituzu azaroaren 25ean. Ondo-ondo ospatuko dugu urtebetetze eguna.
Asko maitte zaitugu.
Muxu haundi bat etxekoekin partez!!

Heriotzak

Joxe Torregaray Gorostidi
79 urterekin hil zen azaroaren 19an, Usurbilen 

Jose Miguel Begiristain
Puertas 52 urterekin hil zen azaroaren 20an, Aginagan 

Juan Mari Jauregiberri Berakoetxea
86 urterekin hil zen azaroaren 21ean, Usurbilen 

tiarekin eta txakur ileapaintzaile tituluairekin. 666 798 804.

Lan bila nabil, umeak edo pertsona helduak zaintzen. Interna moduan ere bai. Paperekin eta erreferentziarekin. Tel. 667 281 660.

Lan bila nabil. Interna moduan, orduka edo baserrian lan egiteko. 631 108 012

Lan bila nabil. Interna moduan, orduka edo baserrian lan egiteko. 619 355 819

Mutil bat lan egiteko prest. Pertsona helduak zaintzen, baserrian animaliak zaintzen edo pintore bezala. 619 355 819

Neska bat lan bila dabil. Orduka edo interna moduan. Pertsona helduak edo umeak zaintzen eta garbiketari. Esperientzia eta erreferentziarekin. (Dokumentazioa egunean). Berehala lanean hasiko nintzateke. Tel. 632 797 416.

Senar-emazte gazte bat, lan bila dabil, baserri batean. Interno moduan edo orduka. Esperientzia handia eta erreferentziarekin. Tel. 631 916 262 / 631 882 360.

Lan bila nabil. Pertsona helduak zaintzen edo beste lan batzuk egiteko. Esperientzia eta berehala lanean hasteko moduan. Tel. 631 916 262.

Lan bila nabil Usurbilen. Umeak edo pertsona helduak zaintzen. Esperientzia eta berehala lanean hasteko moduan. Tel. 631 882 360. Esperientzia zabala duen emakumea eskaintzen da haurrak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Edozein ordutan lan egiteko prest. 660 041 361

Saltzaile edo administratzaile moduan, lan egingo lukeen 31 urteko emakume bat naiz. Tel. 675 703 163. Berta.

Emakume bat eskaintzen da asteburutan pertsona helduak zaintzeko. Tel. 646 756 555.

Neska gazte euskaldun bat haurrak arratsaldetan zaintzeko prest eskaintzen da. Esperientziaduna haurrak zaintzen eta udalekuetan. Tel. 661 626 500. (Maialen)

Lan bila nabil. Edozein lan egingo nuke. Interna moduan ere bai. Umeak edo helduak zaintzen,

garbiketari lanak egiten, jabetxearen batean harraskako garbiketari egiten, etab. Tel. 676 188 411

Pertsona helduak zaintzen lan egingo nuke asteburutan. Esperientziarekin. 657 708 895.

Pertsona bat eskaintzen da propaganda edo gutunak banatzeko. Tel. 943 364 527.

Mutil bat eskaintzen da, helduak zaintzeko, baserriko lanetan aritzeko edota edozein lanetarako. Interno moduan lan egiteko prest. Tel. 662 286 266.

Auxiliar geriatra eta sukaldari bat eskaintzen da, paper, esperientzia eta nazionalitatearekin, adineko pertsonak zaintzeko. 10 urteko esperientzia sukaldari, garbiketari. Arduratsua. 622 487 879.

Lan bila nabil. Baimen guztiak ditut. Esperientzia biltegiko lanetan eta banaketan. 657 535 299.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Orduka, interna edo egunean lan egiteko. Papelekin eta erreferen-

tziekin. 627 487 592.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Orduka, interna edo egunean lan egiteko. Papelekin eta erreferentziarekin. 631 321 981.

Erizain laguntzaile tituluduna eskaintzen da pertsona helduak zaintzeko. Bertakoa eta euskaraz dakiena. Tel. 622 925 562.

Nikaraguakoa eta 28 urteko mutila, pertsona helduak zaintzeko eskaintzen da. Interno moduan edo nahi den bezala. Badaki etxeko lanak egiten. 687 348 223.

Pertsona helduak zaintzen esperientzia asko duen mutil bat, lan bila dabil. Gauetan, orduka edo asteburutan. Tel. 648 761 874.

Gauean laguntzaile moduan, orduka edo asteburutan lan egiteko neska bat eskaintzen da. Paperekin eta esperientzia askorekin. Gomendio askorekin. 638 602 597.

Neska bat eskaintzen da, helduak edo umeak zaintzeko. 695 602 828.

Arratsaldetan pertsona helduak zaintzen lan egingo nuke. 30 urteko esperientzia. 682 214 506.

BESTELAKOAK

Piano edo teklatu bat erosiko nuke. 675 00 70 48 Garbiñe.

Litera bat salgai, metalikoa, grisa eta 2 X 1,90 metroko neurriekin, salgai. Tel. 646 305 658.

Kotxeko ume aukli bat salgai, 2 - 3 urteko ume batentzat. Arroxa. Tel. 646 305 658.

Katakumeak oparitzen ditut. Baserrian ohituak. Tel. 610 375 595.

Txokolden, San Esteban gora aldera igotzen, Mugi txartel bat aurkitu da. Izena: Jose Maria Otaegui Mugica. Udaltzainetan dago, eta pasa handik bila.

Puntuzko txaketa beige bat galdu zen uztailearen amaieran, anbulategi erdigune inguruan. **NOAUA!**ra ekarri mesedez.

Abuztuan Usurbilgo Udaltzaingora haurrentzako botika eta higieneko produktuz betetako laranja koloreko nezaser edo bo-

tikin bat entregatu dute. Galdu duenak Udaltzaingoan galde dezala.

Pago egurra salgai (txinisko eta ekonomikako egokia) 627355126.

Maiatzaren 26an, 17:00ak aldera Oiaro Kiroledegian Golf gris auto bati kolpe txiki bat eman nion. Ohar bat utzi nion. Zurea bada jarri nirekin kontaktuan; 635 71 35 97.

Katuak oparitzen ditugu Donostiatik elkartean. 633 273 747 / 605 730 115

Nort Face markako eta urdin turkesa koloreko haur forro popular bat galdu da. Aurkitu baduzu deitu 678 084 020.

Mobilhome bat alokatzen dugu Landetan uztaileko bigarren hamabostaldian, uztailearen 17tik 31ra. Aste bakarrerako edo hamabostaldirako alokatzeko aukera. 660 057 667

Italiera klaseak eskaintzen dira. Kontakua: 699 609 058.

Borda baten bila gabiltza Usurbil inguruan. Gehienek 10.000 metro koadroko terenoarekin. Telefono zenbakia: 608 703 669

Legorretako babarruna salgai. 10 eurotan kilo. 657 714 355

Haur-sila bat salgai. "Bebe confort" marka LA modeloa. Beltza eta berri-berria dago. Burbuja eta eguzkitakoarekin. 666 373 665.

3 plazako eta 2 plazako sofak salgai, larruzkoak, egurrezko ertzekin. Egoera onean, 500 euro negoziagarri. usurbil72@hotmail.es

Hemengo urra erosiko nuke. 634 409 888.

Denborarik ez baduzu zure maskota paseatzeko, nik lagunduko dizut. Ordubeteko ibilbideak. Asteburutan. 688 888 176. Pablo.

TRUKEAN, OPARI

Inprimatzaileak, telebistak, patineteak, liburuak... Garbigunean. Doan hartu daitezke. Asteleheneretik ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00 artean. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00 artean

Telefono interesgarriak

Udala.....	943 371 951	Abere-Landare Babeslea.....	943 376 650
Atez ateko bulegoa.....	900 776 776	Taxia (Angel).....	607 928 770
Udaltzaingoa.....	943 361 112	Taxia (Joxe Kruz, 8 plaza).....	677 373 466
Udal zerbitzuak (Brigada).....	943 370 148	Eusko Tren.....	943 470 976
Sexu Aholkularitza Gunea.....	697 919 516	LurraldeBus.....	943 000 117
Gizarte Zerbitzuak.....	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua.....	943 362 894
Diputazioa - Basetxea.....	943 361 215	Anbulategia.....	943 362 013
Bake Epategia.....	943 372 336	Amenabar botika (Iehen Oa).....	943 376 076
Udarregi Ikastola.....	943 361 216	Iturralde botika.....	943 363 395
Haur Eskola.....	943 374 061	DYA.....	943 464 622
Zubietako Lanbide Eskola.....	943 364 600	Gurutze Gorria.....	943 272 222
Zubietako Herri Batzarra.....	943 372 077	Emergentziak.....	112
Hastapen tailerrak.....	943 360 465	Genero-indarkeria, arreta...900 840 111 / 016	
KZgunea.....	943 023 684	Gonzalez Ehorztetxea.....	943 362 163
Oiaro Kiroledegia.....	943 372 498	Kutxabank.....	943 361 202
Sutegi Udal Liburutegia.....	943 360 692	Euskadiko Kutxa-Laborala.....	943 364 740
Zumarte Musika Eskola.....	943 371 594	Banco SabadellGuipuzcoano.....	943 370 006
Etumeta AEK euskaltegia.....	607 609 379	Banco Popular Español.....	943 370 411
Kalezar Eguneko Zentroa.....	943 365 249	BBVA.....	943 377 155
Gure Pakea Zahar Egoitza.....	943 368 770	Caja Rural Kutxa.....	943 368 842
Gure Elkarte Zahar Egoitza.....	943 371 751	Argindarra - Iberdrola.....	901 202 020
Arrate Zahar Egoitza.....	943 366 340	Gas naturala - Naturgas.....	902 123 456
Usurbilgo Salbatore Parrokia.....	943 361 239	Telefonica.....	1004
Noaia! Kultur Elkarte.....	943 360 321	Euskaltel.....	900 840 840

Goardiako farmaziak

Osteguna 24	GIL	Kale Nagusia 24. Lasarte
Ostirala 25	ACHA-ORBEA	Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte
Larunbata 26	ORUE	Jaizkibel plaza 2. Lasarte
Igandea 27	ORUE	Jaizkibel plaza 2. Lasarte
Astelehena 28	URBISTONDO	San Franzisko 1. Lasarte
Astearte 29	GANDARIAS-URIBE	Iñigo Loloia 9. Lasarte
Asteazkena 30	URBISTONDO	San Franzisko 1. Lasarte

Azaroak 24 - abenduak 4

Osteguna 1	DE MIGUEL	Kale Nagusia 32. Lasarte
Ostirala 2	LASA SUQUIA	Kale Nagusia 42, Lasarte
Larunbata 3	GIL	Kale Nagusia 24. Lasarte
Igandea 4	GIL	Kale Nagusia 24. Lasarte

* LARUNBATETAN, Usurbilgo bi farmaziak irekitu egongo dira: 9:00-13:30

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
URRUTIA YURREBASO, MAITANE
Etxeberri auzoa 1. Florida auzoa, Hernani
943 55 77 38 22:00 - 09:00

Gainontzeko datak www.cofgipuzkoa.com web orrian ikusgai.

Agenda azaroa

25 ostirala

- **Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Eguna:** 18:00 solasaldia Potxoenean, 20:00etan elkarretaratzea Mikel Laboa plazan. Ikus 14. orrialdea.
- **Mendi Astea.** Hitzaldia: "Autobabesa mendi jardueretan", 19:30ean Sutegin.

26 larunbata

- **Gazte Eguna** egun osoan.
- **Mendi Astea.** Mendi irteera eta bazkaria. Ikus 19. orrialdea.
- **Gure Esku Dago** batzarra Potxoenean, 12:00h.
- **Manifestazioa** 17:00etan Donostian, GuraSOS.
- **Kantu jira** 19:00etan Mikel Laboa plazan.

27 igandea

- **18. Erle Eguna:** Azoka, erakustaldiak, sari banaketa...

Igandean, Erle Eguna

Urteko hitzordu gozoena ospatzeko astebete baino ez da geratzen. Honatx Erle Lagunak taldeak osatu duen egitaraua:

Azaroak 27, igandea

- 09:00-10:00 Ezti eta gozogintza produktuak aurkezteko aukera.
- 11:00-14:00 Erakusketa (erleak, ezti, ontziratzeko prozesua...), postuetako salmenta, marrazki lehiaketa, bideo emanaldia Sutegin.
- 12:00 Erraldoi eta Buruhandien Konpartsaren kalejira udaletxe paretik abiatuko da.
- 13:30 Sari banaketa: ezti lehiaketako, gozogintzako eta marrazki lehiaketetako



Erakusketa, azoka, sari banaketa... Ekitaldi bete egun izango da igandekoa.

irabazleak.

- 14:00 Errifaren zozketa.
- Antolatzailea: Erle Lagunak.

Argazki lehiaketa Santuenean

Santuenea Kultur Elkarteak argazki lehiaketa antolatu du. "Udazkena" da parte hartu nahi dutenentzako hautatu duten gaia. 4-14 urte arteko haur eta gaztetxoei zuzendua dago txapelketa. Lanak, azaroaren 15etik 30era jasoko dituzte antolatzaileek.

Informazio gehiago, Santuenea Kultur Elkarteko egoitzan jaso daiteke.



Udazkenari buruzko argazkiak aurkeztu behar dira.

Datozenak

Abenduaren lehenean, Mikel Laboa gogoan

Abenduaren lehenean 8 urte beteko dira Mikel Laboa hil zenetik. Bere omeneko eskultura eta plazaren bueltan, utzi digun ondarea entzuteko aukera izango da. Usurbilgo Udalak urtero egin duen oroitzapen ekimena dugu honakoa.

Pirritx, Porrotx eta Marimototsen berriena, abenduaren 11n

Aurkeztu berri duten "Tipi-tapa, korrika!" ikuskizun berriaz gozatzeko aukera izango dugu abenduaren 11n Usurbilen. Goizez oraingoan, 11:30ean hasita Oiaro Kiroldegian. Saio bakarra eskainiko dute. Adi beraz, sarreren salmentari. Aurrez eskuratu ahalko dira eta, Bordatxo tabernan eta Marije arropa-dendan, 7 euroren truke. Usurbilen soilik ez, eskualdeko gainerako udalerrietan ere eskuratu ahalko dira. Emanaldi egunean bertan, abenduaren 11n ere sarrerak salgai jartzekoa da antolakuntza taldea, aldeztu aurretik erosi baina euro bat garestiago, 8 eurotan. Urtero legez, Argiaren aldeko emanaldia izango da Usurbilgoa.

USURBIL AUTOAK
 ·TAILERRA ·KARROZERIA ·KOTXEEN SALMENTA

Ford

SUSTITUZIO KOTXEA DOAN!!!

zerbitzu ofiziala

Zumartegi industrialdea **943 36 10 79**

EROSKI/city

kale Nagusia 10, USURBIL
943 361182

JUANTXO
 BURDINDEGIA

Zubiaurrenea 8
943 370 008



ORAIN EKONOMIA

Ekonomia Suspertzeko Plana

200 milioiko inbertsioa gure enpresetan 2019ra arte, gure lurraldeko ekonomia, enplegua eta ongizatea indartzeko.

**200M€
2015 > 2019**

Industria	
Lehen Sektorea	
Gizarteratzea	
Kultura eta Turismoa	



Ofizioen Gida



URDAINTZI
eraikuntzak

649 43 54 75 / 76
943 36 72 64
urdaintzi@euskalnet.net

· ERAIKUNTZAK · OBRAK
· BERRITZE LANAK

Josue
Igeltseritza S.L.

Fax: 943 24 34 60
Atallu pol. atallu, 28
20170 - USURBIL

606 37 21 05

Igeltseritza orokorra

Uraitz, s.l.
Igeltseritza
Orokorra

Telefona
693 059392

e-posta:
uraitz@uraitz.com

Borda Berri Kalea, 2 3º A
20170 Usurbil. Apartado Correos, Nº 26

ELORZA
O BRAK ETA
ERREFORMAK S. L.

661 804 688
jon.elorza@hotmail.com

SAN ESTEBAN 5, BAXUA

ITZIRA
ERAIKUNTZAK

- gremioen koordinaketa
- berritze lanak
- sukaldeak
- komunak
- mota guztietako obrak

errekatziki 7, USURBIL

943 530 337- 607 119 313



ARGILAN
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

629 272 859
943 361 380

BORDA-BERRI 5, baxua USURBIL



Antonio URRUZOLA
AROSZTEGIA

Tel/Fax: 943 376 415
Astesuan Industrialdea, 3

BARRENETXE
Salsamendi Arregi, Iñaki
AROSZTEGIA

943 362 664
Barren Etxe kalea ZUBIETA



ESKAIOLA PLADUR

Joxean Elorza -USURBIL
699426042



antenas Telemar

943 55 33 99
info@antenastelemar.com

Elkano kalea 13, HERNANI



APARICIO
DEKORAZIOA ETA
PINTURA LANAK

Tel. 943 36 60 59 628 883 943
Puntapax, 3 - 3.B 20170 USURBIL



Enrique Alonso
ITURGINTZA
GASA-BEROKUNTZA

Oro har libratze-lanak
TB kamerakin hodi eta tximinien azterketa
BAIMENDUTAKO INSTALATZAILEA

659 675 283

Iñaki Iturgintza

BEROKUNTZA · GASA · AIRE EGOKITUA
ZORU BERO-EMAILEA
ITURGINTZA · ENERGIA BERRITZAGARRIAK

info@inakiiiturgintza.com - www.inakiiiturgintza.com

Tfnoa.: 600 024 825

JOSEBA ARANGUREN
ITURGINTZA

943 83 00 72
659 88 39 12

Rafa
iturgindegia

· ITURGIN LAN OROKORRAK · DUTXAKO MANPARAK
· KONFINDATZAZKO GREMIOAK · KOMUNENKO ALTZARIARIK

Bordaberri kalea 1, 1 behea · 943 36 80 04



ANORGA TXIKI S.L.
KRISTALDEGIA

· komertzial instalazioak
· beira bikoitza · segurtasun beirak
· dutxa-itxiturak eta irristailuak

943 37 17 33- 610 45 93 45

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA



ventamix
letoak neurria □ barandilak □ aluminioak - PVC

943 59 32 58
600 80 30 05

LUMON
Banatzaile Ofiziala

info@ventamix.com · Ugaldea polig. 18, USURBIL